

ko-jaiak, - eta aipatutako garbiketa erritua lotuta daudela - nolazpait:

"Besta Berri Mauleko
Jon Dane Johane Leixtarreko.

.....
(ik. **Igela** Ed. Hor Dago, Donostia 1 79, 172. orr.)

B. C. HEMEZORTZIGARREN MENDEAN.

Jusef Egiategi - zuberotar eta euskal idazleak, lau liburu idatzirik, eta esku idazkitan utzi zizkigun, horien artean Gipuzkoako Aldunditik eta Urkijo liburutegitik, galdu egin den "*Aberatstarzün güzien giltz bakoitza*", etxe-ekonomiazko liburua. Liburu horren hasieran - hain zuzen - Egiategi, Maulen erakaste zenak, iturri hori aipatzen zigun eta aipamen hori salbatu egin du Koldo Mitxelena-k Egan-en liburu horren hitzaurrea aztertu baitzuen. Hona zer dion, eta zer irakurri zuen, geroztik desagertutako liburu hortan erreteriar idazleak:

"Jon Dane Johaneko ütürriren nork ez dakitza sentagaillak? Nork Leistarren ez dü ikusi jente saldoak har-tara jiten ürrhüntik, organtaz, ezinez ebil hantik etxerarat sendorik hoiñez joaiten? Basabürüko neskatila gazte bat zanko min baten gatik, hara eri jinik, osagarriaren (osasunaren) aidürü zagoan, heldü zenean ber ütürriala frantsez andere handi bat; halakorik ikusi ez zualako, begiak biribilik, soz ari zagoan hari egün oroz Margarita. Eritarzünen joaiteak dütü bihotzak izigarri bata besteari hüüllentzen (hurbiltzen) itxusi ez zen Margarita, ez züan ere ahalke behar beno haboro".

Gero ez du hanbat jakingarririk Margaritaren ipuiñak, bakarrik dakiguna mirariak (sentagaillak) egiten zituela eta jende pilla hara biltzen zela.

(J. Egiategi, o lib. aip. 1785, Hitzaurrean)

D. XIX. MENDEAN.

Hona zer dion 1857.an Francisque Michel-ek:

"Mauleko kantonamenduan, eta Maule berean, hiritik bost minututan, ibarxko baten ondoan, mende askotako ospea daukan bere bertuteen gatik fama daukan ur mineral iturria egoten da. Hor, dudagabe, aintziña ur-etxe ospetsua izan da, ezin baiditeke beste moduz erakutsi zergatik **Donibane jaietan** eta bezperako gauean iturri hori erromeria moeta baten lekua den, ez eta zergatik - beste ur haundiak modan jarri baino lehen - zen hainbeste Español eta Itsas-langille iturri harek ematen duen erre kara etortzen, urkorronte hortan beren zaurien garbitzeko (ik. XX.m. Ligin bizitu dugun ohitura).

"Gaur ere, bai egun ere ez dakit ohitura ondar horrek zer erlijio asmo gorde duen: bakan, nekazari bat, hortik igaroko da, ureztatu gabe eta otoitz bat egin gabe. Iturri hortako "ninfa" tenplurik gabe egon da luzaro, zauri sendaezin batez osatu ondoren Beloskar izeneko jaun batek, airearen ater-bean beren dutxak, eriek, har zetzaten etxettoa eraiki arte.

"Duela hogeitaz urte, iturriaren jabe gertatu zen espekulaztzaile batek (1837.an) hamabost urteetako akurapen baten baldintzetan lauzpabost mila libera kostatuko zitzaion eraikintzeen egitea Mauleko hiriarri eskaini zion. Gaur ur-etxe

hori, hain merkeki berriztatua, Mauleri urteko bostehun liberearen mozkin emailea da; halere hiriak ez du sekulan gogoan hartu uren azterketa, ez eta asmatzen ea badutenez bertuterik - kanpoan ezagutaraziz - goratzapen bat ezagutaraziko leikenak. Ezaxol horrengatik, larrudura, imurida, eta zauri askoz gaizkitutako jendeetan mirarizko sendaketak gertatzen jarraitzen du".

"Kantonamendu berdineko Altzürükü herrian eta inguruko lehen mendi goihenetan, herrian aspaldidanik ospetsua den **Ahüzkiiko ütürria** badago Harispe mariskalaren onepenek arrakasta goratu diotenak. Pixasturu (bexika) minak, helgaitzak, bihozterreek han sendakuntza ziurra daukate. Ahuzki ez da Maulekoa bezala bainu-etxe iturri lekua baizik, kalterik gabe hortaz ase ta bete bailiteke, hala nola urzale batzu gogo onez eta ongitasunez goizaldi bakoitz ehun basotaraino edan baitezakete, nahiz neurri arrunta hogeitahogei hamar izan. Kimiak ez dio aurkitu, ur biziki garbi, arin, airetsu baten kalitateak dituela baizik. Horrengatik, besteek sendaketa harrigarri horiek airearen ontasun bereziari datxikote. Garindaineke Darroquain jaunari esker eta beste lagun batzuen artaz, han ongi zaudë, bizpahirur etxe eraiki baitituzte".

Ohar batean F. Michel-ek gaineratzen du departamenduko Kontseilu orokorrean 1855.ean Ahüzkiiko iturriaren beritzapenerako asmoa eta aurrekontua aurkeztu zirela, arkitektoak hamar mila liberatako obrak eskaintzen zituelarik, ez zela egillerik agertu, aurrekontuaren eskaziaren gatik (1987.an egingo da).

"Aurretik aipatu ditugun urez gain eta herriko jendeek berdin erabiliak, Urdiñarbe herriaren ondoko, **Garaibiko** burdin eta sufredun urak, bai Ahüzki mendia oinean, dago Garaibi.

"Beste batzu ez dira batere erabiliak, hala nola Soroetan, Carricaburu jaunaren etxaldean, sufredun dena; ez eta **Bildozen**, Uhaitzondokoa, ez eta ere **Mendiko** burdin ura eta holako **Barkoixe** herriak, **Ligi-k** eta **Lakarri-k** Atarratzeko kantonamenduan, bainu-etxeak badituzte.

"Aipatu ditugun iturriez kanpo, Iparraldeak **ur gaziak** baditu Altzürükü eta Gamere artean holakoak agertzen dira; Gameren bertan, ur hau aski nasaia, nahiz eka kimiko nahasketa batek egunerozko erabilarentzat ezegoki bilakatu".

(Fr. Michel, *Le Pays Basque* Paris 1857, 182-183. orrialdeetan)

AZKEN HITZA

Ez ditugu, hurbiltzekorik ere, benetako sendakuntza eta sendabide guztien aurpegi guztiak argitu, bakarrik lotan edo galtzeaz ziren idazkiak aztertu. Ez nuke Zuberoan aurkitu dudana ere Euskal Herri guztirako lege eta eredu eman nahi.

Egia esan gure herria, liburutan hain behartsua hain zeke-na zelarik, eta eskuidazkiak ugariago izanik ere hain galkor, ez genuen - duela hogeitahamar urte gai hortaz arduratzen hasi ginenean - hainbeste lekukotasun itxaroten; gure aurkintzeen mugak ezagutzen ditugu ordea alde batetik ediren idatzizkoak herriak garai haietan zeukan jakituri zati bat baizik ez baita, salbatu diren lantxoak ispillu hautsi baten puz-

kak direlarik, aintzinako sendabiden irudi traketsa eta zati-koia ematen digute, bestaldetik geronek mugak ipiñi ditugulako **Zuberoari mugatuz**.

Argi agertzen zaiguna da, gure herrian eta Zuberoan bederen - bai noizdanik ez dakigularik - idatzizko errezetak biltzeko ohitura berezia zegoela eta dagoela eta zeukanaren gana, zekianaren gana, sendabide eskean jotzekoa ere. **Nor ziren errezeta horien jabeak?** Badirudi herri xehea baita zerbait ikasiak zirenak ere. Garaziko Mongongo Azantzaren aldakiak erakusten digu idazkizale hori eskola maisua zela XIX. mendean eta bere euskarazko eskola parte egitean nekazarieli baliagarri zena erakusten zietela. Amikuzeko idazki berdinarekin jabea nekazari aberatsa izan bide zen, ezen maister baten kontua baitakar sailhets batean, paper bazter batean. Zuberoako Azantzaren aldakia, badakigu garai batean etxean eskulangile (XVII. mendean) eta gero nekazari (XVIII. m.) ziren Barkoixe Peillen-eneko paperen artean zegoela gordea. Hauek dira dakizkigunak Azantzaren kopia "ugariez". Gero Pariseko B. N.etik ateratu dugun sendakuntzari buruzko lana (90. orrialdeetako) bakarra da, besterik agertzen ez den bitartean, eta Ordinabeko Goihaletxe hargin baten jabetasuna zen 1819.an, beraz herri-xeharen eskuetan zebiltzelako testu "herrikoiak" dira.

Herri jakintzaren **jatorri orokorra**, maiz eztabaidatu egin da, baina ikerlari gehienek diote sendakuntza eskolatutik hartu duela asko: askotan ehun, berrehun urteren atzerape-narekin egin baitu, XVIII. mendetik goiti sendakuntzak abidura handia eta aldaketa nagusirik edukiko baitu, atzerapen hori nabarmenago bilakatuko da, herri-sendakuntzari zaharkitu margoa kutsatuz. Gure mendean ordea, herri-sendakuntzaren errezeta bildumak ez dira gehiago egingo, zeudena euskaltzale eta liburutegietara bilduak litzuzke edota gure senitartean bezala maleta baten zolan lo egongo, bereiziki berrogeitahamar urte hauetan sendakuntza horrek itzalaldi bat ezagutuko bait du.

1. Jakingai zaharkitu horien balorapena ez da oraindik nabarmen, edo behintzat, sendakuntzaren adar zaharkitu batzuek garapen berria dutenean "berritapentzaileek" ez dute iturri zaharra aipatzen: halaxe "moderno" etiketarekin dator Bidave-k Goihaletxe harginarentzat egin zuen bilduma morfo-psikologia, garai batean, ahaztua zena, orain langileen hitzartzeko ta hartzeko lantegietan erabiltzen baita, halaber fisiognomonia. Bitxieta ta arraroena da zelan **harri preziosen** "goharrien" erabilera berriz modan dagoen Ipar Ameriketara, sekulan Europa zahar honetan izan ez balitz bezala Erremüle edo **Rosmarinus officinalis** nola goresen duen Bidave-ren esku idazkiak aipatu genionean gure lankide den Elhorga lapurtar apotekariari inardetsi zigun, azken bi urteetan izugarri moda etorri dela - ikerketa batzuen ondoren - erremedio askotan Erromeroa sartzeko; berdin esan genezake, jaun horrek erran bezala, hain ospetsua zen **Sobia** "Salvia **officinalis** L; - J. Casenave Harigile hain luzaz aipatua - geroago eta erabiltzenago dela.

Badakigu bestalde mundu guztiko gizonek azkazal eta adarren errautsa, kimiaz keratina dena gehien bat, sendagailutat hartu dutela; Ez da sekulan probatu Adarbakoitz den Errinozerontearen adarra, gizona arrago egiten zuela, baina Azantzaren bilduma agertzen den errauts horrek **erabilpen berriak badiu gaurko erremediogintzan**. Berdin magia

sinbolikaz asmatutako adar eta hezur errautsak Bidave-ren eskuidazkian agertzen direnak azkenean zerbait eragin eta indar izan lezaketela aitortu behar.

Astolaster delako komerien ekarpena oso luzea ta baliagarria izan zaigu, ikusteko aberastasunaren arauera, eskolaren arauera ere, **sendakuntza hirur mailatan** zegoela, XVIII. mende hartan.

1. sorgin, azti errezeta (ik. behi gorotz purga)
2. etxe errezeta ona (ik. gatz purga)
3. mediku errezeta zaila (ik. belarrekin egindako purga gaur ere egin ditekera)

Ofizioen aldetik, jakingarria da irakurtzea nola lanpide bakoitzak **bere arauak** zituen eta **bere mugak** alegia barberuak ezin zezakeala mediku lanik egin hots errezetarik idatz sendagileak errezetak idazten bazituen ere ez zuela botigen sendagailuen egiteko eskubiderik eta apotekariak berdin besteen eremu eta arlotan ez zuela sartzerik bakoitza bere ofizioaz bekaitz zelarik. Argi dago ere emaginak alde batetik oso moral handiko andereak zirela, haurrik galeratzen ez zutenak eta besteetik sendagileek laguntzen zituztela bereiziki ama erdiberriak zaintzen. Garai hartan hain zuzen hasiko dira lanbideak legeztatzen eta arauak idatziz ipintzen denentzat.

Sendagile eta barberuen **ikasketez**, astolasterretan aski ikasten da, baita ikasberriari dituzten gastu nagusienak zein diren

- 1 Fakultateko ikasketa garestiak (Montpellier-en)
- 2 Liburutegi baten erostea
- 3 Etxe baten erostea, erien gaixoen artatzeko

Hain zuzen astolasterrak baieztatzen digu, erdal gobernu paperetan irakur ditekera, alegia, erosten zuten etxe hori erabiltzen zutela gaixoen egontegi edo "anbulategi" bezala (nahiz ambulategi hitzak dionez, aldakorra, ibilkorra izan behar lukean). Ospitaletxe horiek dirupide onekoak izan behar zuten, bestelan denek ez zituzten irekiko.

Ezin esan **astolasterrak**, Zuberoako komeria herrikoiak sendakuntzarako erabiltzen zirenik, nahiz gure gaiari lotutako aipamen ugari ateratu dugun haietarik ispillu zatiak dira, baina nahikoa onak, ordea, garaiko benetako praktikak zein ziren jakiteko, baita jende xeheak zer begiz ikusten zituen; garai berean erdaraz argitaratu idazkiek egiaztatzen dituztelarik parre eragiteko, irri eginarazteko erabili kontakizunak.

2. Biltzaile / erabiltzaile arazoak ez dira hain argi errezeta bilduma horietan ez da ondo nabari noiz diren lehenbizikoz idatzi, eta idazten edota kopiatzen zituenak erabiltzen zituzten ala sendagilea zenez, ala kopiatzailea edozeini aldatutakoa saltzen zuena? Donapaleko Bidave, medikuntza errezeta bilduma egilea, **kopiatzaile** hutsa eta ez beti ona delarik, aurrean lapurdierazko eskuidazkia daukala eta bestalde benafarrera kutsuzko esaerak agertzen zaizkiolarik, hitz berdina bilerronen tartean bi gisatara edo hirutara ematen digu.

Beren iturriak aipatzen ez dituztenean zenbateraino "berenak" ziren egileen errezetak ezin esan, zeren garai haieran errezeta bildumak izan ala mail goragoko sendakuntza liburuak, gehienak, aintziñakoen konpilazio hutsak baitziren errezeta bilduma etnografiako gaietan sartzen denez geroz, eskolatuen sendakuntza liburu aintzekin erkatuz, haurride

eta senide direla erran genezake, adibidez XVII mendeko frantses jakintzalarien *"Le journal des Savants"* delakoa irakurtzea baizik ez da, mende horren azkenean baizik ez delako jakintzaren bidea aztikeriatik, sorginkeriatik urruntzen hasiko; hain zuzen horregatik Abelsendakuntzaz Mongongo Azantza lapurtarrak bere burua 1697.an "ximista" kimikalari bezala aurkezten du, eta nahiz frantses liburu batean hartu duen oinarritzko inspirazioa **ofizioko** norbait dela horregatik, agian errezeta gehienak "modernoak" dirudite, erdiak gisa batez edo besteez erabiltzen direlarik gure denboretan eta bi sorgin errezeta baizik ez damazkigularik.

Hamazazpi-hamazortzigarren mendeetan, Iparraldean, errezeta bilduma horien loratzea, jakingarria eta ohargarria zaigu ezen garai hartan demografia goiti baitzihotan, gure eskualde hortan bere goihena, bere gaillura iristen zuelarik, gero beti geroago ta beherago joango dena, guztien gain Euskal Herri barruko jendetzarentzat. Denbora hartan ere hasi zen, gutxi gorabehera, gosetearen laño beltza urratzen edo urraxetan behintzat, erosotasunaren, aisatasunaren xedea gogoetan sartzen halaxe Jüsef Egiategi-k azpimarratzen digu 1785

Jendea ütsütü ta aberastarzünaren üdüriak dü eskeletü hantik etxeak zatizka erorten, doteak ezteietan janik

(**Fisolofo Heüskaldünaren ekheia.** Berezita XIV 836 oharra), bai, berdin 1780 inguruan idatzitako *Mosde Etxeberriren gogamenak* delakoan argitaragabeen zenbateraino aldatu den mende hasieratik züberotarren bizimoldea erakusten digu berak gorago irakurri duzuen gisa, urte hailetako ekonomia krisia eta bizimoldeen "usteltzea" diruzaletasun berri bati lotzen duelarik:

Zorigaitza gehitiaz (aberaskeriaz) da egünkal handitü ta lanhoa bezala menditik ordokiala eraitsi (op cit Berezita XIV **Ezkontzaz**, 836 oharra)

Egia esan gure filosofoak ez du osasuna eta gaitza gehiegi aipatzen halere bere motzean emango dugu zer dion gorputzaren gaitzak arimaren gainean daukan eraginaz:

Ezi zer da arimaren eskelegoa egongei denean korpitz (gorputz) batetan eritarzünenez (gaitzez) hirotüa denean? ... Delakoz korpitza arimaren egongia (egontokia) han ez da laket, ez deno sanoki ta ozenki ta ez, korpitza beti eri bada, dagoelarik arranküran, dago presontegian. Hantik arren jalkitea (urtetzea) dateke haren betiereko egarria ...

(op. cit. Berezita XXIV **Hilen pitzairaz**)

Egiategi-k biziaren diona, nahikoa jakingarri zaigu, XVIII. mendean aintziñateko filosofo, kristau pentsamendu ta euskal ikuspuntuaren sintesia ematen baitigu gure zuberotar filosofoak:

"Gaüza güziek mündüan derekie biziaren llabürantza erakusten. Ogia (garia) bizi girenaz zainetaradrano urtekal da hiltzen; binatzeak (mahastiak) urte hartzen düan beste, negükal herio zaio jiten: zonbatetan ondoak berriz lanthatürük ere ezta hordien egarriaren doiala (neurrira) bizitzen. lanta früta emaiten derekien güziek, hiruretanhogei (60) urteak ez dütie igaraiten, haboroenak (gehienak), gure adinaren üngürüneala dirade heltzen.

"Zaldia hogei bat urte, hora (zakurra) ta gatüa heen erdia dirade bizi, polailak adinik ez dü zahartü beno lehen jaten dügü. Hek zer nahi düe erran? Baizik: **zertan ari gira mündüan?** Gaüza beharrenak haiñ gütik denbora dagoetzan landatzen, ürrhea ta zilarra dirade Lüzeago iraüten, bena ala ahalik tinkoena begiratzan (gordetzen) dütügularik, eskü barreiazaletara (banatzailetara) dirade erorten. Oreiñak ta arranoak düelakoz bizia gük beno lüzeago gure flakeziren ahalkez (lotsaz) daude gütarik ürrün.

"Handiak nahi lüke bizia bere potereari zehatü, beti gogoia dü hartara, bena lüzatü nahiak dio beti llabürtzen, Garcia-k dio Zelaneko errege batek entzünik, **aiman harriak** bizia lüzatzen züala, harri harez jateko ta edateko ontziak zütüala eragin, bena beste gizonak bezala zela hil. Gizon, zaharrari gaude begi ükhaldiz haren adineala heltü nahian, bena haren minak ta flakezia ez günüke nahi Phlegon-ek, ja erran dügünak jenderen adin handiena ediren nahiz, dio Erromako erresuma güzia (zena hürran lür guzia) züala ikher-tü ta ehün urteetako gizonen izenetzaz papel plama bat ezin bete züala bena ezkiribüz ezarri balütü 50 etara heltü ez zira-deanetzaz libürü handirik egin lükiala, dio.

(op. cit. **Gizonaren bizi** P. 189).

Gero zehatzago, zehazkiago dio Egiategi-k:

O Jinkoa! zer faborea hainbeste podagros, lür minez, ügeriz, parelsiaz, zorminez (apoplexiaz), helgaitzez (sukarrez) harriz, garailaz (mal de piedra) ta mila beste minetzaz lotsa izaitea! (lib. aip. *Hilen pitzairaz*).

Beraz zahartzaroko aje ta minak lotsagarri bezala zaizkio Egiategiri eta zaharren biziari lotzeko nahikundea bitxi. Garaiko filosofoek ez zuten holakorik aipatzen.

3. Iturriak. Althabegoiti-ren **Landareen jakitatea**, Aintzinateko medikuntzan sartu egin dugu, nahiz liburuxka gisa 1900. urtean argitaratua izan berak dionez 1870.an landareen, belarren izenen bilketa hasi baitzueneta hogei bat urteez eraman, tartean belarren sendakuntzarako erabilera ikertzen zuelarik.

Badirudi, eta uste dut probatu dudala, Althabegoiti-k kanpotar iturriak xurgatu zituela, alde batetik bere sendabelleren erabileran Kneipp abadearen izena ematen baitigu eta aleman apez sendatzaile horren obrak ezagutzen baitzuten; agian gure zuberotarrak ez zekien alemanera, baina XIX. mendearen azkenean apez ospetsuaren doitxerazko lanak frantsesera emanak izan ziren eta gizon horren idazlanak hidroterapiak eta fitoterapiak zirenaz gain, Althabegoiti-ren iturria, itzulitako bigarren melga hortako liburuetan bilatu behar genuke; gainera frantses eredu bat begien aurrean nabari zaio, landareen izenak lehenik frantseseraz ematen baititu. Horrek ez dio merezimendurik kentzen Althabegoiti-ri baina gogoratu behar zaigu beti, joan den mende azkenean ta XX.ean ere herritar askok Zuberoan gure **Landareen jakitatea** ezagutu dutela ta kanpotik hartu eta batzutan herrian bildu sendabelar errezetak hortik etor daitezke.

Iturrien bilatze honetan atsoitiz edo erran zaharretara igarotzeak, paremiologiara jotzeak, beste argibiderik dakarkigu erakusteko zenbateraino eskolatuen jakituriaz kutsatua, aberastua, aldatua zen XVI-XVII mendeetan argitaratu atsoitizak: eskolatuek bilduak izan arren ikusten baita askotan beste

hizkuntzetatik itzuliak direla, eta ez beti "bilduak", nahiz beren denborako, beren garaiko giroaren arauera euskaldunduak. Jakingarriena da nola holako errefracuak, Oihenarteren antzekoak, gure egunetan, Oztibarre herrian bildu diren eta Baionako **Bulletin du Musée Basque** delakoan argitaratu. Atsotitz horiei balorapenaren emaitako, denbora bereko sendakuntzaren lekukotasunak erabili ditugu nahiz Froidour frantses geografizale eta ekonomizalarenak, nahiz geroago-ko züberoerazko "jakilegoak".

Beste euskal lekukotasun gabez, ezin dezakegu esan, hurbiltzekorik ere garaiko eta aintzinako mende bakoitzarentzat herriko sendakuntzaren berri dakigula, ez eta garaiki-deek zenbateraino erabiltzen zituzten eskolatuen edota ez eskolatuen sendagailuak etxeetan. Hortarako eta gure oraingotar ikuspegi arrazoinzaleek laguntzen ez gaituztelarik, orduko jendeen gogamenak ulertzen, lan dago egiteko. Euskaraz behintzat hortarako altxor bat galdu egin dugu, Donostiako foru aldundian zegoen Egiategiren hirugarren liburua, *Aberastarzun güzien giltz bakoitza*, hortan egileak etxe-sendakuntza aipatzen bait du baita hitzaurrean hain zuzen, Lextarreko Donibane iturriaren erabilera ur-sendakententzat. Anartean **astolasterrekin** askietsi behar.

Sendakuntzarako lan horien iturriak, naski, erdarazkoak ziren, baina Euskal Herrian eta Zuberoan bereiziki, hirur erdara ezagutzen ziren gutxi edo aski eta askotik guttiagora: okzitanera, gaztelania, frantsesera, horien artean bilatu egin dugu, erkaketak egiteko; nahiz ez ditugun beti iturri zehatzak aurkitu, zein ez diren askotan ikusi dugu eta gutxi gorabehera zer hizkuntzatik itzulia, bildua, aldatua den gure idazkia.

Ez dugu uste gure bilduma xumeentzat latinera jo zutenik, gehienetan bigarren edo hirugarren eskuko obretara baizik eta zoritxarrez Montpellier-eko fakultate ospetsutik igarotako euskaldun sendagile ezagunek ez digute ezer utzi, ez euskaraz, ez erdara batean Iparraldean edo behintzat ez ditugu aurkitu.

Bidavek, XIX. mendean aldatu, XVIII. mendeko testua, lehenbizikoz XV. mendean, Bigorrako okzitanieraz idatzitako liburu batekin erkatu genuen, jende sendakuntza eta errekeitzuz idatzia izan zena eta Clovis Brunel frantses jakintzalariak, berriro argitaratua, gure mendean. Gaskoin liburuan - Bidave-n bezala - harri preziosak eta belarrak sendaketan erabiltzea aipatzen da, eta Brunel-ek dio garaiko Italiar ta frantses liburuaren antzekoa dela, horregatik harritu gaitu ikus-teak **zuberotar euskal bildumak ez duela ezer ikusteko horiekin**, ez hizkuntzaren aldetik, ez eta ematen diren errezeten aldetik. Gurea, derrigorrez, berriagoa da, XVI. mendean bakarrik landu egin den diamantea aipatzen baitu. Hori ere nahikoa ez balitz, liburuaren hizkuntzak salatzen du, **gaztelaniako iturriak** erabili direla, testuan aintzinateko medikuen izenak gaztelaniako itxurapean agertzen bait dira, Sixto, Alberto Mano, Giraldo, Constantino, Avicena eta abar, ta gaztelaniako hitz batzu ez baitira itzuliak eta Felipe II.a aipatzen baita, Españako gauza askorekin batean, beraz hor nonbait XVII. mendeko español liburuak erabili dira, Alberto Magno bat eta Gabriel eta Alonso Herrera-nak.

Paueko "etnografia ikerlarisa" bati aipatu diot iturri horien arazoa eta gaurko begiz baizik ez baitakusate jakobinondo horiek, ez du onhartu Zuberotarrek gaztelaniako iturriak erabil detzazketela (gauza berdina entzun dugu pastoralen

gatik), gaur gure herritarrak frantses ziudadanoak direlako, nahiz testuaren luzean hamaika adibide dagoen erabilitako testuak gaztelaniaz zeudela.

Gaztelaniako liburuak nola iristen ziren Zuberora esan diot andere horri, lehenik XVIII. mendearaino gure probintzi honetako salerosketa nagusiak Nafarroarekin egiten bait ziren, ehunka jende lanera hara joaiten baitzen eskulanetara eta nekazaritzara urtero, eta azkenik De Lancre sorgin erretzaileak 1610an Euskal Herritik zebilelarik espanol saludadoreak, sendatzaileak ihes egiten ikusi baitzuten. De Lancre-k dio dohainik sendatzen zutela, arimaren trukean, baina badakigu sendatzaile gehienak nola dabilzan badakigu, jendei esaten bait diete "nahi duzuna eman zenezake" ordaintzeko orduan. Saludadore horiek naski sendakuntzazko liburuak zeuzkaten eta halaxe Zuberoan sartu ziren, XVIII-XIX. mendean **gure herritar gehienek** ez baitzekiten frantsesik, baina askotan, okzitanoa eta gaztelania bai, garaiko frantses bidaizale hasarretuek diotenez.

Halaxe hirurehun bat urteez Zuberoako administral hizkuntza mailegu askoren emallea, askok ezagutzen duten, **okzitanierak** ez du zubererari herri-sendakuntzan ezer ekarri: pauekar etnologiariek bultzaturik Lacrique baseritarr gaskoinaren sasi-frantseseko esku idazkia ikertu ere egin dut: abelsendakuntzari buruz izan arren Azantzaren gisa, XVIII. mendeko biarnes lan horrek **ez du ezer ikusteko** gurekin, eta erkaketa horrek ez baitzuen merezi ez dut nere lanean sartu. Egia esan okzitaneraz ez zegoen ez jende ez abelsendakuntza libururik egin, herria frantsesek konkistatu ezker, eta Zuberotarrek ezagut zetzaketen liburu bakarrak gaztelaniak edo frantsesek zitekean, eta "happy fews" batzuek irakurtzen zituzten latinezkoak.

Gogoetatsu utzi nauan zertxobait itzulpen horien, eta adaptapen horien arrazoina izan da. Zergatik ez zituzten gaztelaniako liburuak erabiltzen, batzuk irakurtzen zekitelarik? Eta hor askazgoan ikasitakoak baliatzen zaizkit, alegia lehen idazten zekianak eskuidazkiak aldatzen zituela liburuetatik eta eskuidazkiak saltzen: horregatik, agian, galdu egin den Azantzaren liburuaz lauzpabost aldaki, eskuz kopiatuak, salbatu ahal izan ditugu, eta Bidaveren lana ere holakoen artean sar genezake, gainera jabeek beren izenak ipintzen zituzten beti manuskritu horietan. Oxala, egun batean besterik agertuko da nonbait?!

4. Sendakuntza eta eraikuntza

Eritegien sorrera Euskal Herrian eta bereiziki Zuberoan Santiago bideari lotu egin zela erakutsi dugu, gure lurralde txikian hala hirur "Ospitale" nagusi ireki ziren Ospitalepean, Maulen, eta Ordiñarben Ospitale horiek, lehenbiziko edan eta jantegi ziren, lotegi ere bai eta azkenik gaixorik zeuden Santiagozale erromesen sendategiak; halaxe Europako medikuntza erabilka guztiekin harremanetan jarri zen Zuberoa leku horien bitartez, horregatik bere menditar izadiak eta atlantiko giroak emandako berezitasunez kanpo, ez zen gure herria sendakuntza gauzetan baztertuegia egon, nahiz fakultaterik ez izan.

Gehiegi luzatu gabe eta aurretik esana laburtuz ikusi dugu nola XVII. mendean Maitia, lehen apezpikua izen hortakoak, Ospitale dirua bere jauregiaren eraikitzen erabili zuen, eta Ordiñarbeko eritegia erori; hola XVIII. mendean

Ordiñarbeko eta Maulekoak baturik benetako Ospitale Orokorra zahar eta gaixoentzat eraiki zen eta ikusten da Mauletik Atarratzera ateratzean eskuinetik garaiko eraikuntza zahar berritua zahartetze bilakatua: hau da gure azken ospitalea, Ospitalepekoa eta Ordiñarbekoak desagertu baitira, behin betirako. Ez da errez esatea zer lotura zeukaten eraikuntzeekin Larrainen zen herri-medikuak, ezen Larraine eta Santa Grazi-Urdaitx erromesen ospitale txiki izan baitira; berdin ulergarri zaigu zergatik Euskal Herrian apezek sendabellar zaletasuna zeukaten, erromesen garaian hartutako ohituraz, agian?

Gizaldi haietako sendagileak eliz-gizonak zirela ez da iñolako dudarik, ezen XII. mendean Orreagako Eritegi eta Ospitaletxea eraiki zutenean, Agustindarren eskuetan utzi zuten hango etxearen zerbitzua. Zuberoan gizaldi hortan Ospitalepean eta Ordiñarben Italiatik Arles-en gaindi datozen peregrinuen atosteko ospitaletxe txikiak irekitzen dituzte - Urdaitxeko Santa Grazi jadanik egiña zelarik, erromesendako arrotzetxe sare zabala antolatua dago. Bide hortatik zetozen peregrinuak, Ospitalepetik Mauleraino zihoazen ta hor hirur norabide zeukaten.

1. Maule-Ainharbe-Donazaharre (Ainharben ospitaletxea)
2. Maule-Ordiñarbe-Ibarre Bunuze-Donazaharre (Ordiñarben ospitaletxea)
3. Maule-Urdaitx-Leire (Santa Graziko abadian arrotzetxea)

XII. gizalditik XIV.raino bigarren mailako norabide horiek geroago eta korrituago izango dira, Nafarroa eta Aragoia bereiziz, XV. mendetik goiti Zuberoan benetako Santiago bide bilakatzen baita. Zuberoako ospitaletxe horien (euskaraz ospitale izendatuak), erromesei jan-edan loa ematetik kanpo; erromes gaixoak pixkortuxe, sendotuxe ondoren zaldiz Orreagaraino laguntzea, eroaita zen lana; han egiazko Eritegia omen zegoelako. Denborarekin ospitaletxeak behartsu eta zahar gaixoen, erien azken leku bilakatuko dira; eraikuntzak eta laguntzak galtzeraino. (Oraindik Luzaiden Orreagako eritegia balukete, ez lukete hain urrun Ibañeta gaindi Iruñeara beharrik oso gaizki daudenean: turisten ibilaldiak ez dute peregrinuen txangoen lekua hor, eritegiak gordez).

Hona beraz, legez kanpoko apezek sendagilegoaz argibide batzu Santiago bidearekin lotuak: XVI. XVII. gizaldiko gozainek kontutan hartu behar zituzketenak apezek sendabellar praktikan jarrai zezaten. Eta jarraitu dute mendeetan zehar, Zuberoan XIX. mendean Althabegoity daukagu eta XX. mendean Casenave Harigile ohitura zahar bati lotuak, eratzekiak, eusleak alegia.

Sendakuntza ihardueren eta eraikuntza moten artean loturak ez ziren hain garbi. Dirudienez prioretxeak ziren gehienbat erabiltzen santiagozaleen onerako, halaxe Ainharbe, Arrokiaga, Barkoixe, Larraine ta Urdaitxeko Santa Grazi, baina dirudienez **ospitaletxeak** (mandategiak) komentu nagusien eginbeharren laguntzeko ziren eta albait, diruz laguntzeko beren detxemak emanaz; beren harremanak halaxe Maltako Andere Dena Mariaren izenpean zen Barkoixekoak, Berroetan, Maulen zegoen Jerusalemeko Donibandarren etxe nagusiari ematen zituen; Ospitalepeko ospitalea, Somport-eko Santa Kristinaren komentuari, eta

Ospitalepeak Orreagako komentuari, bakarrik Berroetak beretzat gordetzen zituen. Eritegiak, gaixotegiak non zeuden eztabaidatzen da oraindik anbulategi edo hobeki esan egon-tegi txikiak baziren prioretxeetan, Orreagan, eritegia baze-goen, baina eztabaidatzen da Mauleko Berroetan Erdi-Haro zaharrean ote zegoenez.

Horiek guztiek erakusten digute, alde batetik zergatik prioretxeen inguruan eraiki herriek, Arrokiaga, Larraine eta Santa Grazik ez zuten luzaroan Zuberoako forua eduki eta ospitale nagusien inguruan eta prioretxeen inguruan zirela Zuberoako herri gotorrenak eraiki gehienetan. Ospitaleekin, komentuekin, santiagozaleekin zeukaten harremanek gure aintziñakoen jakiturian eragin handia izan zuketeeen, guztien gaiñetik sendakuntzaren munduan ez bada ikusten herri-zokokeriarik gehiegi, ez nabarmenkeriarik gehiegi. Ez. Gure herria ez da sekulan osotoro zokoratutako eskualdea, enparauekin loturarik gabe, ez mendi bazterretan zeudenak, ez basoen erditan bizi zirenak.

Santiago bideen ikertzeak baizik ez digu Erdi-Haroko medikuntzaren berri asko emango, ezen izurrite haundien berriez kanpo, ez baitakigu gure aurrekoen osakidetzak, osasun, eta sendakuntzeen berri. Garai haietan ez naiz sartu. Hortarako kondairalari izan behar liteke, biologilari eta paleografia jakin, denbora zaharretako izkiri-mirri eta idazkerak irakurtzeko eta garaiko jendeen gogoetetan sartzeko, gure mentalitateak ahazturik.

5. Higiene eta osakidetzak

Kapitulu bat egiteko haina ez dugu aurkitu hor nahiz jan-edanaren higieaz XVI-XVII. gizaldietako atsotitz eta erran zaharretan aholkuak aurkitu, baita elizak haurren oheratzeaz eman zuena XVII. mendeko, 1676. urtean bere "Pronus diebus dominicis" delakoetan, Hortik kanpo ez da osasuna gordetzeko aholku asko ematen garbitasunari buruz ez eta airearen sanotasunaz. Halere, hogeitahamar urteez asko eta beste hogeitaz gutxiago erabili den bihizkuntzatak Artxu-ren gramatikan holako zerbait aurkitu dugu euskara jakingarri batean gainera, ezen Artxu altzürükütar eta zuberotar inspektorea izan arren holako Iparraldeko euskara batuan idazten baitzuen; bakarrik züberoerako "ü" delakoak gordez: **Grammaire bilingue**, Baiona 1852.

"Apezgai bat deitüa izan zen eri baten gana. Joaten zen etxeko sükaldean ediren züen eguzkian etzanik zagoen gatü bat. Mahaintto baten gaiñean erieren ohe ondoan, mediküak manhatü züen edaria osorik zen. Apezgaiak, fisika zakielakoz erieren itxuratik eza-gütü züen kanbarako aire mintüak, osarzüna txartü zeiola. Leihoak zabalterazi zitüen, eria bertze toki batera muda erazirik, hargin baten bila igorri züen. Harginak bereala latsünez (karez) (t)xuritü zitüen kanbarako paretak. Lan horien medioz, egün llabürretan osarzüna etorri zaikon, eri zagoenari". (op. cit. 3. orr.).

Holako zerbait ere irakurri dugu Azantzaren XVII. mendeko liburuan, abelsendakuntzaz "Borda edo tegi eta kabalen egon leküen perfümatzea aize edo kozü (kutsu) gaiztoen kontre" intsentsu, sufre, errexüña, kamamila, erromero erreaz, airearen sanotzeko.

Norbaitek Aintziñako Euskal Herri osoko herri eta fakultate sendakuntzak ikertu nahi balitu, nik baino iturri gehiago

baluke - euskaraz ez dut uste - baina Zuberora nuenaz gain iker muga, ez nago halere esku hutsik. Naski, astolasterretako bi aipamenez kanpo ez dugu **etxe-sendakuntzaz** asko ikasi ez eta etxeetan aurkitu diren **errezeta bildumak** zenbateraino erabilgarri ziren, baina ikerketa honek erakutsi dizkigunak hauxe dira:

- 1.nik. Herri-sendakuntzaren eta fakultate sendakuntzaren arteko harremanak XVIII. menderaino ugari zirela, "sasi-sendagile" edo sendatzaileek, egiazko sendagileek haina irakurtzen zekitelako batzutan, nahiz "sasi"ek erabiltzen zituztenak apur bat zaharkituak izan.
- 2.nik. Luzaro "sinesteek" leku berdiña izango dute sendakuntza "cientificoan" eta "empirikoan"; adibidez J. M. Satrustegi-ren bidez ezagutzen dugun Joan Amenduzekoaren, medikuntza kartillan, gaitzak sukarrak horoskopioarekin lotu egiten dira XVI. mendean, baita berdin zubereraz, Bidave-ren kopiaz ezagutzen dugun XVIII. mendeko errezeta bilduman. Hamazazpigarren mende azkeneraino ez da izango sinesteak eta oharkuntzak bereiziko dituen senda jakintzarik, eta Pasteur-eraino guretzat sendatzaile eta sasi sineste zaizkigunak jakintzagai izan ziren, bai XIX. gizaldiraino.
- 3.nik. Sasi-medikuen eta saludadoreen onarpena - dirudinez - Euskal Herrian sorginen hauziekin gutxitzen da, nahiz ez duten horregatik euskaldun apezek sendabelarren jakituria ahaztu egiten ta erabilerak bizirik dirauan.
- 4.nik. Enpirikoen arrakastak luzaro irauten du, sendagileak baino lekuanago daudelako, merkeago daudelako, herritik hurbilago direlako, populuaren konfidantza bilduz.
- 5.nik. Hamazortzigarren mendearen azkenean, gure foruek gehiegi legeztatu gabeko lanpideak zirenak, antolatuko dira; alde batetik mediku ikasiei ikasketa hobeak eskatu egingo zaietelako, baita barberuei ere; bestetik arauak agertuko bait dira, araudiak idatziko ta aplikatzen saiatuko lehenik lanpidekoen artean, geroxeago enpirikoen eremua murrizteko. Garai haietan ordea "dentista" ofizio hiritarra izanki, baserrietan "hagin-ido-kizaleek", edozeinek "besterik-eza"ren monopolioa izango dute. Gaurko sendakuntza aipatuko dugunean, ikusiko noiz "cientifico" bilakatu zen, denetan haginlari lanpidea.
- 6.nik. Ikusi dugu ere nola Santiago bidearen kariatari ireki ziren ospitaletxeak geroago ospitaleen jatorria diren eta nola XVIII. mendean modernotasun apur bat hartzen hasi ziren.

Bakunduz eta eskematuz aintziña norbait gaixotzen, eritzen zenean zaurtua zenean, ez du aspaldi bezala - lehenik etxen edo auzoan sendagailua, bilatu ohi zen; bigarren urrats batean enpiriko baten gana joaitean eta azkenean nahikoa diru zenean eskoladun sendagile jakintsu baten gana.

Aintziñako sendakuntza hortan aitor dezadan ez naizela urrunegi joan ta Erdi-Harokoak ez ditudala ikertu, baina ez dut uste, orduan ere, Euskal Herria nabarmentzenegi zenik, ez aurrerapenetan, ez atzerapenetan. Agian, gure herriko historilari eta biologilariak hortara arrimatuko dira erdal tes-

tuekin gehienetan, eta egin dudan bide zatia askoz urrutia-go eramango dutela gure kondairaren sasien artean apur bat kurri gaitezen. Aitortu behar dut iturri guztiak ez ditudala agortu, ez Jüsef Egiategi osoki ez eta frantsesezko dokumentuak, hala nola Jakes Belakoaren 1660.eko "Tablettes" delakoak. Nire lan honen akatsak ikusita, hobe baten egitea opa diet. Halabiz.

BIBLIOGRAFIA (Aintzinako sendakuntzaz)

- ARAMBURU Y BAGO, **Manual de Higiene y Medicina popular** Bergara, 1899 (geroago euskaraz emana).
- BARANDIARAN Jose Miguel, **Paletnografia vasca** Ed. Martin y Mena, Donostia, 1921
- BARRIOLA (H), **La Medicina popular en el Pais Vasco**, Donostia, 1952
- BELA (J. P.), **Receptes et secrets divers recueillis en faveur des pauvres par les soins de M. le chevalier de Bela** (Eskuidazki argitaragabe hau, Paueko Archives Départementales des Pyrénées Atlantiques, delakoan - cote I. J. 62 (3 et 5) zenbakipean, XVIII. mendeko sendakuntzaz jakingarria)
- BELA (J.), **Commentaires à la coutume de Soule** (1660-1667 bitartekoa). Eskuidazki argitaragabea, Musée Basque Baiona.
- BERGER P. "Le rôle des représentations savantes et populaires de la tuberculose dans la mise en place des institutions de 1880 à 1889". "Premier Congrès d'Ethno-médecine", Paris, novembre 1983.
- BORDES Fr. "Le livre des remèdes de Labadie. Contribution à l'histoire de la médecine populaire landaise au 18 ème s. **Société de Borda**, 1982, 387. zbk.
- BRUNEL Clovis, **Recettes médicales alchimiques et astrologiques du XV ème s.** Toulouse 1956 (gaskoinezko liburu zaharra).
- DEGUIRAL (R.) "Le pèlerinage de Saint Jacques de Compostelle, son influence sur notre équipement hospitalier" (Annales de la Fédération Pyrénéenne) 1942-1943.
- DE LANCRE (P.), **De l'inconstance des mauvais anges et démons**, Bordeaux 1611, Ed. Elkar Baiona, 1983.
- DESPLAT (Chr.) "Médecines du passé, médecines populaires" **Adour-Magazine** 4. zbk. Pau, 1982
- DUBARAT (V. P.) **La commanderie de l'Hôpital d'Ordriarp**, Pau, 1887.
- EGIATEGI (J.) **Filosofu hüskaldünaren ekheia**, Maule 1785, inguruan eskuidatzia, Ed. Euskaltzaindia, Bilbo 1983.
- EGIATEGI (J.) **Aberastarzün güzien giltz bakotxa**, 1785. Eskuidazki hau L. Mitxelenarekin eskuen artean eduki genuen, ballatu naiz kopiatu zuen liburuaren hitzaurrean geroztik liburua desagertu baita.
- ESTIENNE (C.) LIEBAULT (J.) **La maison rustique**, Paris 1583 Mongongo Dassance lapurtarrak 1697. bere **Abereen liburua** idazteko erabili eredu.
- GIL (L.) **La medicina popular en el Mundo clásico**, Madrid 1969.
- GOIHANEIX (A.) BIDAUE **Sendagailu errezetak**, eskuidazki argitaragabea, Paris Bibliothèque Nationale, 117. zbk. (Fonds celtique et basque) XVIII. mendeko zubereraz (90 orrialdeetatik, 80 sendakuntzarekin zerikusia daukate).
- GRANJEL (L.) **Historia de la medicina popular vasca**, Salamanca, 1983.
- IHARCE (Dr.) **Miricuntzaren gaineco populacionen faltac**, Paris 1783. (izenburuaz kanpo frantsesez)

- LABORDE (J. B.) **Les sorcières en Béarn, Gascogne et Pays Basque**, Pau, 1936, 167. orr.
- LASALLE (P.) "Notes sur les eaux minérales de Garaïbie" arr. de Mauléon in **Mémorial des Pyrénées**, Pau 5/9/1857.
- LOUX (F.) **L'ogre et la dent**, Ed. B. Levraut, Nancy 1981, 187. orr.
- MAITIA (Mgr.) eta BELAPEIRE (A.) **Pronus diebus donimicis**. Orthezen, 1676..
(prediku bilduma, osakidetzeta aholkuekin).
- MONGO-DASSANCE "PEILLEN" **Abereen liburua**, Dassanceren 1692. ekotik,
XVIII. mendean zubereraz jarria.
- M. **La médecine et la chirurgie des pauvres qui contiennent des remèdes choisis, faciles à préparer et sans dépenses**. Ed. Lecomte Paris, 1758.
- MICHEL (Francisque) **Le Pays Basque**, Paris 1857, Ed. Elkar Donostia 1982.
- NOGARET (J.) "Note sur Ahusky" in **Mémorial des Pyrénées** 23.9.1857.
- PEILLEN Tx., **Lexique de l'anatomie en langue basque**, argitaragabea, 780. orr. (microfiches)
"Alberto Magno euskaraz" in **Bulletin du Musée Basque**, Bayonne, 1976.
ik. Egiategi (J.) **Filosofa hūskaldūnaren ekheia** argitalpena.
" Heriotza biologiaren ikuspegitik" Elhuyar, I. Donostia 1974 (kondairaren gaindi nola ikusi duten idazle zaharrek, lehen artikulua honetan)
" Zaharrerria" Elhuyar 3. Donostia, 1974 (idazle zaharrek eta oraingoek nola ikusten duten zahartzea)
" Jauregulberry-ren errezetak" in **Bulletin du Musée Basque**, Baiona 19 (errezeta bilduma hau Amikuzeko euskarazko aldaera da, Mongongo Dassance iturri ospetsutik itzulia).
- POQUE (Dr. H.), **Histoire de la médecine en Béarn**, Lyon, 1932.
- SAINTYVES (P.), "Le folklore des eaux dans les Basses-Pyrénées in, **l'Ethnographie** nouvelle série 30. zbk., Paris 1935 (euskal-iparraldeko senda-ta azti-urak).
- SATRUSTEGI (J. M.), "Hallazgo de una elegia vasca y la medicina en el Pais Vasco" BRSVAP 1.zbk. Donostia 1963 (XVI. mendeko lruñeako sendagileez jakingarria).
- SCHLOSSER (Dr. L.), **L'art ancien de guérir**. Ed. France-Empire 1984, 214. orr.
- SEDZE (H.), "Les vieux remèdes béarnais", **Pyrénées 99**, 1974, pp 171-177.
- SEGALAS Dr. et HENRY O. "Analyse des eaux d'Ahusky" in **Memorial des Pyrénées**, 12-13 / 10 / 1857, Pau.
- SOUBERVIELLE (Dr.), "Analyse des eaux d'Ahusky" in **Gure Herria**, Baiona.
- TARTAS (I.) **Arima penitentaren okupazione debotak**, Orthezen 1672. (barura ta osasun, adin moten sailkatzea).
- THALAMAS Labandibar (J.), "Contribución al estudio etnográfico del Pais Vasco continental" **Anuario de Euskofolklore** Euskalkuntza, Gasteiz, 1931.
- URKIZU (P.), **Astolaster ta tobera mustra**, Euskaltzaindia, Bilbao, 1992.
- VASQUEZ de PARGA ta beste, "Peregrinaciones a Santiago" C.S.I.C., Madrid 1948, II
- VINSON (J.), **Le folklore du Pays Basque**, Paris 1883.
- XARRITON (P.), "Médecines et médecins dans la littérature basque", G.A.S. Université de Pau, 1988.
- ZEEBROEK R., "Histoire savante et "pensée sauvage" dans les nomenclatures botaniques d'Europe, in **Civilisations**, Bruxelles, 1986, vol. 36.

ERDAL AIPAMEN GEHIGARRIA

De Lancre (Pierre) **De l'inconstance des mauvais anges et démons**, Bordele 1611

Plusieurs anciens Philosophes ont cru que toutes les choses du monde étaient pleines d'esprits et que leurs concordes ou discordes possédaient tous les effets soit naturels soit accidentels et qu'il fallait en ce point loger entièrement notre défiance ou confiance. Si bien que ce grand médecin Asclépiades disait fort à propos qu'à composer une médecine nécessairement plusieurs choses concouraient et devaient se lier ensemble:

- l'esprit de l'auteur à l'écrire
- l'esprit du médecin à l'ordonner
- l'esprit de l'apothicaire à le composer
- l'esprit du malade à la curie propre pour sa guérison et disposer le corps son compagnon à le prendre et le recevoir.

A quoi il ajoutait les esprits des herbes et autres choses médicinales lesquelles étaient toutes mêlées et unies ensemble entour dans le corps du malade, chassent et jettent hors ces mauvais esprits desquels la discordance causait l'indisposition y remettaient les bons et les accordaient ensemble en si bonne rencontre qu'ils lui redonnaient la santé (op. cit. 236. orr.).

Or si cette discordance d'esprits fait notre guérison si difficile aux médecins qui peuvent par causes et moyens naturels redonner la santé au malade contre sa volonté (car il ne peut mourir quand il lui plaît) outre que le malade ne tient communément tout médecin pour ennemi: a plus forte raison sera t-il impossible aux Sorciers de guérir un malade ou maléficié bien sensé qui a en horreur et le médecin et le remède qui le tient pour ennemi formel et qui n'attend de lui qu'imposture, tromperie et déception pratiquent sur sa personne des remèdes sans raison et qui ne sont médités et consultés qu'avec Satan" . (op. cit. 236. orr.) (.)

Je parlerai entièrement de la qualité du Sorcier magicien ou enchanteur, qui fait l'Empirique et le médecin et entreprend des cures qui se semblent du tout impossible par des moyens extraordinaires et sans raison puis nous parlerons de l'ineptie de leurs remèdes et montrerons qu'ils sont tout a fait empruntés de Satan et partant qu'on ne peut en saine conscience recourir à eux sans encourir l'ire de Dieu et la peine des lois divines et humaines (237. orr.) (.)

"Il y a toujours quelque chose qui va de travers en la guérison que font les magiciens et sorciers dont Médecin, Philosophe ni homme du monde, ne saurait rendre raison

- jeûner tant de jour
- tant de chandelles
- tant de Patenôtres
- tant de chapelets
- l'aumône à tant de pauvres
- tant de signes de croix

"Tout cela et choses semblables réduit et restreint à certains nombres montre qu'entre la superstition et l'abus il y a certains maîtres qui leur a prescrit cette règle. Oui si on veut user de ces choses qui semblent pierres il faut les faire accompagner toujours d'une bonne et saine intention et pour les desbromber de tout soupçon de superstition il les

faut faire et en user **sine fiduccia in materia forma et numero et regarder bien à qui on s'adresse et de qui on les reçoit** (.) (op. cit. 241. orr.).

"Quant à ces caractères conçus en Hiéroglyphes non entendus gravés en lettres inconnues et billebarrées en forme étrange, tous ces brevets composés de noms sauvages et mots nouveaux peu intelligibles, toutes ces recettes éloignées des remèdes communs et naturels

comme les os de taupe, des ailes de chauve-souris, des pierres tirées de la tête des crapauds, du bois d'une potence, d'une aiguille qui a touché la robe d'un mort, de la poudre tirée de crâne de la tête d'un larron qu'on aura pendu tout fraîchement, des yeux de taupe qu'on dit ne paraître jamais qu'après sa mort, le premier denier que l'on donne à l'Eglise le Jeudi Saint (jour qui est sans offrande) des plantes qui ne trouvent dans la pays qu'on les cherche et s'ils s'en trouvent cueillies la Veille de la Saint Jean, par une fille vierge la nuit obscure avec une chandelle faite de quelque drogue et composée dans laquelle il entre une infinité d'ingrédients.

"Sur quoi comme dira paraventure que ma proposition est trop générale que Dieu n'a pas tellement lié notre santé aux herbes, aux plantes et aux règles et axiomes de la médecine, qu'il ne la nous faille jamais attendre d'autres que de ceux qui ont étudié en cette faculté. Que c'est une niaiserie de recourir aux médecins ordinaires en maladie extraordinaire donnée par Satan à quelqu'un de ses suppôts par la permission de Dieu (op. cit. 237. orr.) (.)

"Et que la bonne opinion l'amitié ou l'inimitié ne peuvent empêcher les bons effets d'une recette éprouvée: et qu'après cent mille expériences il ne faut plus douter que certains personnages n'aient reçu de Dieu la Bénédiction et certains dons de guérison laissant la raison pour laquelle ils redonnent la santé

qu'on ne peut nier que les Septimesimes nés ne guérissent les écrouelles dont j'ai vu faire merveille à un mien beau-frère. que les Posthumes ne guérissent ces grosses tumeurs que les vulgaires appellent loupes (.) (op. cit. 237. orr.)

"Je ne parle de ceux qui ont le don de Dieu que leur naissance leur a acquis (je ne sais comment si ce n'est qu'il faut tenir que c'est une particulière grâce du tout puissant) ni de ces autres lesquels par leur sainteté de vie peuvent obtenir par prières approuvées de l'Eglise, qu'ils guériront certains maux (op. cit. 238. orr.).

"Mais je tiens plusieurs personnes qui s'en mêlent non seulement pour imposteurs mais bien pour magiciens enchanteurs et sorciers: leur dévotion feinte et simulée, leurs paroles courtes, leurs prières forgées par eux à plaisir, leurs jeûnes, leur forme de vie, leurs remèdes sans rime ni raison tout cela est suspect à tout bon Chrétien (op. cit. 238.orr.).

"Les saludadores guérissent gratuitement et ne prennent rien en Espagne: car ils se contentent d'engager les âmes de ceux qu'ils guérissent pour en faire un présent à leur maître Satan, sachant bien qu'on court aux remèdes du médecin qui na la gibecière ouverte et qui fait semblant de n'opérer que par charité (.) (op. cit. 240. orr.).

Toutes ces superstitions difficiles à exécuter et la plupart impossibles nous tirent à des curiosités diaboliques qui fait que bien souvent ne les pouvant trouver parce que la plupart ne sont pour le diable supplée au défaut et nous en fournissant se paie de notre curiosité au péril de notre âme. (op. cit. 240. orr.)

JACQUES DE BELA, **Commentaires à la coutume de Soule**, XVII. m.

(argitaragabea)

Plaie: "Ce mot est pris ici pour la navreuse et fracture faite par quelqu'un à un autre or pour ce que du coup viennent ou se montrent des maux divers il faut savoir que la navreuse provenant de main mise sur une grosse plaie dite de grande loi est marquée pour celle de la différence des autres ou bien sont moindres et simples plaies nommées paroents. Il y an a d'autres appelées couturier et d'autres nommées tumeur ou enflure faite ou le coup tombant immédiatement sur la personne ou médiatement et impertinement percutive-ment Ainsi qu'aussi y a une sorte de contre-coup qui arrivent en certains endroits du corps aussi qu'en la tête seulement. Tellement que si on frappe sur l'un côté d'icelle comme en un vaisseau cave et uni soit il de verre terre ou autre chose terrée advient que si on le frappe en un vaisseau cela se faisant au moyen de l'air qui est à la concavité de tel corps unis car ledit air trouvent empêchés ou agités les autres endroits de sa fonction et serrent et roulant avec violence il repercuté et fait breche en autre partie dudit corps ou membre qui est tenu comme fermé et tout uni.

Aussi la peau et charnure d'un bras et d'une cuisse ou d'autre pareil membre se peut rompre mais pourtant l'extérieur démontre de l'intérieur et en veut juger les causes par les circonstances des effets. (art. XVII, 650. orr.)

2. Zauriaren ordaintsaria Bela-ren arauera

"D'ancienne coutume es cas susdits le serment des qui present vingt sols morlas se doit faire à Saint Etienne d'Arroue pour ceux qui sont de dessous Mauleon et par ceux qui sont de l'Arbaille à Saint Pierre d'Ildaux. Et par ceux de la Soule souverain à Saint Martin de Sibas - mais pourtant la cour de Licharre, - quand bon lui semble peut recevoir le serment judiciairement ou en l'oratoire de Saint Jean de Licharre à l'arbitre de ladite Cour". (XX. k. 336. orr.)

3. Zuberoako foruaren aipamen batez irazkin bitxia: gizaragi jaleak:

"Ceux qui mangent de la chair humaine sont de purs sauvages, sans reconnaissance de Dieu. Les corps des personnes qui ont bien vécu, mortes *justae sepulture tradentur ne corpora aut ossa eorum detineantur aut vexenter*, car dès lors que l'homme dispose des choses vivantes de ce monde ce serait être insensé que de se nourrir d'un homme qui est sont semblable après sa mort" (370. orr.).

4. "Le médecin est pour la nécessité, c'est à dire pour les règles de son art bien ayant pouvoir avec choses utiles et nécessaires à remédier à la maladie dont il est question. Si le médecin juge mal on peut appeler de lui au juge qui peut le corriger (f. 649-650).

4. Moralazko aipamen batean sendakuntzazko irudi ona

"Il vaut mieux aller au devant par prevention du mal pour l'empêcher que de s'attendre à des remèdes pour l'ôtre lors qu'il sera venu. (f. 643)

XIII art. Plaie loyale

"Plaie Loyale dont est ainsi faite mention au for de Béarn est dite partout ce titre pour la blessure à cause de laquelle est due une loi ou amende que comme est dit ci-dessus le mot loi en ce matiere de délit.

"cette marque qui est et doit être celle de la même longueur que la mesure que les chirurgiens appellent l'aune et qui est et fait la cinquième partie d'un pan de cane soit que le coup soit ou profond ou large et dont est parlé audit for de Béarn. Non obstant quelle soit divisée en quatre parts par le trou blanc ou interruption du milieu de ce ligne susopposée donc à entendre que la plaie pour être jugée et comptée.

Article XVI

A côté de cela des médecins sévères sur la question, reçoivent les vrais malades dans des salles d'attente encombrées. Où est la vraie médecine? La réponse est celle du pharmacien Larrègle, dans le corps médical comme chez les guérisseurs il y en a des bons et des jean-foutres.

Dès lors que l'intervention de l'homme touche à l'intégrité du corps et de l'esprit il est normal qu'un code de déontologie s'impose; aussi bien dans l'Education (Code d'enseignant) dans la vie civile (droits de l'homme) dans la vie religieuse (morale) que dans la médecine tout n'est pas possible?

C'est paradoxalement la médecine qui pose et posera le plus de problèmes..Les professions médicales et paramédicales ont une double protection l'une interne, le code de déontologie l'autre externe, la définition des médecines illégales et des médecines reconnues. Toutefois nous savons que dans tous les domaines l'imperfection des formes institutionnalisées permet l'existence de pratiques parallèles, et les organisations professionnelles, les Ordres ont bien du mal à défendre des monopoles discutés, des médecines reconnues face à des nouveautés, des marginalités; de même ont-elles bien du mal à faire régner une certaine honnêteté dans une profession où l'argent peut-être soit très difficile, soit trop facile à gagner. Que dire alors des médecines parallèles où seule la clientèle, le succès, peuvent contrôler les activités?

Maintenant me direz-vous où est la médecine basque là-dedans?

Il vaudrait mieux dire la médecine au Pays Basque. Il y a longtemps que l'on a renoncé à savoir les sources du savoir ancien, c'est comme si nous voulions connaître où s'est formé la première fois la goutte de pluie qui nous choit sur le nez?

Occidentale oui, un peu orientale, par l'apport grec, locale certes, mais dans quelle mesure: jamais nous ne saurons qui a inventé quoi dans le domaine des plantes médicinales, en chirurgie parfois. La préhistoire de la médecine est multiforme; bien sûr depuis le XIVème siècle nous avons quelques noms de savants et de nos jours le Physicien Agirre Leloire et le médecin Ochoa sont des prix Nobel; ils n'ont fait qu'apporter quelques gouttes à l'océan déjà fort ancien de la science médicale occidentale.

Cette médecine populaire durera en Soule autant qu'il y aura des habitants, mais la débasquisation culturelle menée systématiquement depuis 1880 lui fera perdre ce riche aspect que nous lui avons découvert dans les documents souletins anciens de nos ancêtres polyglottes et sur les lèvres de nos informateurs disserts dans leur langue maternelle. La télévision nous apprend à vivre à penser comme des Américains et il n'est pas étonnant que la jeunesse prisonnière de la culture ludique du Rock et du Walt Disney ne

possède pas les notions médicales de base de ses ancêtres. Quand l'ordinateur aura remplacé le médecin, le drugstore la pharmacie la boucle sera fermée, d'une culture qui ne sera plus ni populaire ni libératrice.

Le Pays Basque résiste et tente d'assimiler ces apports allogènes, mais le savoir populaire est de plus en plus relégué dans les musées, les archives, les livres, peu lus ou non édités.

Alors que le peuple vit mieux dans le monde occidental, qu'il a davantage de loisirs, des raisons idéologico-commerciales stérilisent sa créativité, sa sensibilité ses connaissances, malgré les vives réactions de certains et l'apathie des plus écoutés comme nous l'a montré récemment une série d'émission de radios où parlant des Flandres et du Béarn, les cultures flamandes et gasconnes n'ont pas été citées. Certains diront qu'il n'est pas important que le lointain Paris sache nos richesses puisqu'elles continuent à se maintenir, mais pourquoi faut-il que ce soit l'échec des savoirs et cultures officiels qui fassent la survie des savoirs et cultures parallèles et marginalisées?

LABURPENAK

I. HERRI SENDAKUNTZA ZUBEROAN

Bederatziehunen bat orrialdeetako lanaren laburpena da hau: aspaldian bildutako testu zaharrez, oraintxe bildutako albiste, elkarrizketetan oinarritua. Lan hortara bultzatu gaituzte arrazoien askok eta oinarritzkoenetan biologia erakaste izan naizelako eta bestalde etnografiari, eta euskarari aski emana.

Azken urte horietan, gainera, nahiz medikuntza geroago eta dohanago izan, bazter edo sasi-sendakuntzak bizi zirautela bizkortzen ta hedatzen zirela ohartu ginen, azken sendakuntza zahar horiek debalde ez izan arren. Sendakuntza ezti berrien eta herri-sendakuntza horien artean ba ote zen mugarik jakin nahian eta sendakuntza horien pizkunde-berpizkunde horren arrazoiak bilatu nahi genituen. Bestalde, errezeta zahar asko gal zorietan zeudela susmoa bagenuen. Horiek ziren hasierako galderak, geroago beste itaunik agertu bazen ere.

Ikerbidearen aldetik aukera bat egin genuen, alegia eremu aski mugatua ibiliko ginela, hain zuzen XII. mendean Alfonsor borrokariak sortu euskal herrialdean, Zuberoan. Berri emaleen zerrenda gertutzean eta lehen galderak egitean konturatu ginen adimen artifiziodunak inposatu "binako" sailkapenak utzi beharke genituela, baita frantses kartesiatarrei hain gustatzen zaizkieten etiketak, txartelak ezertarako izango zirela ere, ezen Zuberoan ez baitut herri-sendakuntzen eta sendakuntza eztiarte arteko muga eta harresi sendorik aurkitu, bai nere herri-sendaketa praktikazailleek, denbora berean, sendakuntza eztiarte ezagutzen eta erabiltzen baitute, hain zuzen gaurko sendaketa eztiarte egile gehienak, aintziñako sasi-sendagileen seme alabak baitira.

Horrekin batean eta aztertzerakoan **sendaketa herri-koi/ikasi** delakoen banaketa lausotu egin zait, bereziki aintzinako sendakuntza aztertuz, **Zuberoan behintzat**, bien bereiztea ez baita XVIII. menderaino gertatu, eta gero ere bien artean zubi bat baino gehiago ikusiko baita eraikitzen.

Lan honen egitean beti kontutan hartu izan dut Gizarte Segurantzak (Sécurité Sociale) baino lehengoa eta ondokoa

eta horrek eraman nau, eta berriemailek eroan naute, itaunketa guztien apur bat aldatzera. Aintzinako denboretarako berriz idazkietan bermatu naiz, argi txipi batzuen piztu egiteko. Naski ikerbide desberdinak erabiltzeko hiru helbide hartu ditut.

1. Aintzinako sendakuntza (XII-XIX. mendeetan)
2. Etxe-sendakuntza eta apotekari, sendagileen iritzia hortaz, gaur.
3. Sasi-sendagileak, gaur, eta zer dioten hortaz fakultate sendakuntza erabiltzen dutenak.

Gure ikerketak euskal etnologia eskolako bideak hartu ditu (ñiñolaz ere frantses jakobinoena, horiek beren inkestak frantsesez egiten baitituzte, alegia "hexagonoan" jende guztiak frankofono direla, eta behere mailako hizkerarik ez ikas-teko) Beraz euskaraz eta zubereraz egin ditugu galderak, berriemaileen gandik ahalik eta hurbilenik izateko. Sasi-sendagile batzuekin izan ezik- beste kasu guztietan berriemaileek ondo ezagutzen genituen, eta denei "curriculum vitae" bat egiten genien.

Ikerketa guztiak grabatuak edo eskuz idatziak izan dira eta berriemaileei idazkindu ondoren irakurtzera emanik izan, beraz askotan grabaketa eta transkribaketan artean arte haundiak daude berriemaileen zuzenketak tartekatuta baitira.

I. HERRI-SENDAGILEAK ("SASI-SENDAGILEAK"), GAUR

- Hiru berriemaile izan ditugu, sei teknikentzat,
- Joanes Casenave Harigile: sendabelarrak, eskusendaketa, lasaialdiak, digitipunktura.
 - Augusto Daguerre: hezur zuzentzailea, "daunatua"
 - Joanes Intxauspe: larru edo azalmin sendatzailea.

I.1. A. Sendabelar eta lurki batzuen erabilera sendakuntzan

Joanes Casenave, Betharametar Aita bat da, letretan lizenziatua, baina bere jakituria "oihanzaiñ" zuen aita eta belar sendagile zuen amaren gandik jasoa du. Lehenik noiz eta nola bildu eta gorde, lore, erro, rizoma, haziak azaldu digu, gero berak aukeratu eskema jarraituz: larrua, burua, urdail-hesteak, arnasbideak, ernalbidea, hezurtza, giharretza bakoitzaren mailean zer landare erabili kondatu digu. Berdin bereizi ditu, "nūtenak" (tisanak), egosiak, kataplasma eta besteak, kanpoko eta barruko erabilerak, landare gehienek dosiak, landare pozoindunak eta abar. Halaxe 166 landare mota izadiak emandako beste lurki, urki batzu aipatzen ditu.

Corpus hortatik abiatuz, landare horien kimia egitura orokor bat eman nahiz Frantziako *Dictionnaire de la Pharmacopée Française*-tik hartu dugu, eta konturatu Zuberoan, batzutan, liburu horrek ematen ez dituen erabilerak baditugula - beharbada besteetan esperientziarekin galdu baitira - baina bestalde ere gure menditar eta atlantikotar botanikak ematen diola holako pireneo bereizitasun bat gure sendabelar jakiturari. Norbaitek uste izango du - eta arrazoin du Joanes Casenave-k Euskal Herritik kanpo bizi izan delako, kanpotar errezetak daudela - baina hori aspaldiko kontua da, ezen gure herria Santiago bidean izanki, ordudanik Europa guztiko errezetak ezagutu baititu eta bestalde orainarte sendabelarzaileak Euskal Herrian abadeak izan direlako nolana ere besteak baino zerbaixto eskolatuagoak.

Bai hamaika bider Baionako apezpikuak debekatu arren, euskaldun apezkek sendabelargintzan jarraitzen zuten eta lekukoak dira Zuberoan - agian arkitu dudana XVIII. mendeko errezeta bilduma hortakoak - ziur aski Althabegoity-k XIX. gizaldi azkenean bildutakoak eta XX. mendean Joanes Casenave-k emandakoak. Berehalaxe gogotik igaro zait, kanpoko iturriak bilatu behar nituela (baita beste liburukian erakutsiko dugun bezala) badirudi nahiz hiztegian, nahiz erabileretan ez dugula gaskoin eta okzitano iturrietatik edan, baina latinezko eta gaztelaniazkoetan, Zuberoan. Gero iturri zaharren artean Baionaldean zeuden italiar sendagileen gure herrietan zebiltzan espagnol saluadoreen eragina izan ditekete. Joanes Casenave-ren errezetetan ez da, ordea, Althabegoity-rekin bezala frantses eragin zuzena nabaritzen. Konparaketekin batean, eta kimia analisiaren ondotik, latinezko laburpen bat eman dugu, gaitzak landareekin sailkatuz.

I.1.B. Esku sendaketa

Gure berri emaile Joanes Casenave-k gogoratu digu aintziñako "sacerdox"en egiteko bat zela eskuekin sendatzea. Agian bere lur Sainduetan egindako egonaldiak bere poterearen deskubritzera eraman zuen. Gure lagunaren kasuan, nabarmenki, eskuko erreuma min bat sendatu zion. Gure kasuan eta berrikiago ez dakit bizkarreko mina eskuen hedatzez lortu zuen ala bizkarezur manipulaketaz, sendotu ninduen behintzat, berehalaxe. ez du Joanes Casenave-k ez otoitz ixilik edo goratikakorik erabiltzen. Ez dakit nola eragiten duen eskuak, baina hobeki al dakigu, askotan, erremedioek zer egiten duten? eta zer egiten duen elektroterapiak, debekatzen ez direlarik?

I.1.C. Joanes Casenave eta lasaialdiak

Hau da gure herri-sendagilearen hirugarren pratika bat, eta aurretik kontatzen digu nola ikusi zituen lasaialdi bakunak erabiltzen bere gaztaroko euskaldun zaharrak, eta nola gogora etorri zitzaion, azkenean, Euskal Herrira bizitzera etorri zenean, euskaldunentzat Ekialdetarekin ikasi "erabillak" euskalduntzea. Yoga, ordea, ez du erakasten, baina Shultz eta bereziki Caisedo Katalanari asko zor diola dio, baita euskaldun zaharrei egiten ikusi dituen ariketa batzuei ere.

Halere alde handia dago Casenave-tik, Schultzen soringierietaraino, ez baitu gure aitak astro-gorputzaren binkatzean batere sinesten eta ez baititu erlijio xede batekin lasaialdiak erakasten. Euskaraz ta frantsesez lasaiadiak aspaldian eragiten ditu, - duela hamar bat urte hasita Zuberoan-ordaindua izan gabe.

I.1.D. Digitipunktura eta beste

Erisendaketa edo digitipunktura Aita Casenave-ren jaiotxean egiten zen, dolore eta minen ezituzeko (behatzen okertzea hagineta mina kentzeko, ukarai edo eskutur erditan trinkatzea zintzurreko mina kentzeko ta abar) Gero teknika horrentzat eta hauts beroaren erabilerarentzat, mito-fundatzailea ematen digu alegia artzain gazte batek Basajaunari mesede egin ondoren ikasi baitzituen; baina hauts beroaren erabilera ipuin hortan agertzen bada ez dut beste modu batean entzun.

Joanes Casenave - beharbada Frantzia arkitzen ez den moduan herri-sendakuntza ta sendakuntza ezti ta berrien arteko lokarria lizateke - ezen oraingoa aintzinakoarekin nahasian baitarabila - dudarik gabe. Bestalde - eta hori fakultate - sendagileen artean Zuberoan aurkitu ez dugun ardura badu Joanes Casenave-k, hots prebentzioaz, higieñez arduratzen dela - halaxe berak bizi higieñez zehatza erabiliz, nerbio zirikari guztiak baztertuz, (ez alkoholik ez tabakorik) eguneroko gimnastika eginaz, lasailadiak praktikatzu gogoaren ta gorputzaren arteko oreka baten bidez, eritasuna, gaitoxotasuna urruntzen ditu eta besteei horiek denak erakasten.

I.2. Augusto Daguerre, "daunatua"

Herri-sendakuntzaren gaurkotze eredia da Agerre Jauna ere, ezen bere sendia Erdi Haroan hasita nafar barberu eta hezur-zuzentzaile jarraipeneko delako. Ipuin batek dio XV. gizaldian Nafarroako erregeña aharrasi batean ahoa zabalik geratu zela, matrail hezur lekutik jauzirik, eta arbaso harek sendatu ezkerreko izurako sendi horrek sekulako ospea gorde zuela; baina ohartu behar da Izura (frantsesez Ostabat) Santiago bidean Europako bide gurutze nagusia zela, ta 1702.an Aguerre zela horko barberoa; beraz aria horrek holako jakituria izatea ez da harrigarri.

Hizketan dugun Aguerre jauna 94 urteetako gizona da gaur, lau hizkuntzetan berba egiten duena, ederki gaztelaniaz (hogei urtez egona Argentinan), ondo frantsesez eta okzitanoz, euskara ez du hainbeste menderatzen; gure ohituraren aitziz euskara batuan ipiñi dugu hiru hizkuntzetan erantzun diguna irakurketaren errezteko. Bere itxurak erakusten du zenbateraino bizi higieñez ona eduki duen, - ez Casenave bezain zehatza ordea - (ez gehiegikeriarik, ez debekurik, ez dietarik, egunero oiñez ibiliz eta siesta on bat)

Bere jakituria eta trebantzarentzat gain ginetik ipintzen du Aitonarekin Izuran ikasitakoa, hezurtza bati begira eta gero hamalau urteetan hasirik aitarekin Mauleko, Donapaleuko merkatuetan aitari egiten ikusi dizkionak. Aita horrek hain zuzen Heugas izeneko mediku baten gandik haurkeria jasan zituen, eta horregatik bere seme alabei eskatu sendakuntzazko diplomak edukitzea edo atzerrira joatea. Anaia bi Argentinara joan ziren eta gure Augusto Parisera, Rue Cujas-eko eskola bakarrera masaia eta fisioterapia ikastera; han bakarrik doloren ezitzea ikasirik dio beste guztia aitaren gandik duela: huna beraz lotura bat herri-sendakuntza ta fakultatekoaren artean.

Augustoren belaunaldian anai arreba guztiak hezurren zuzentzea praktikatu zuten eta gizon horren, bi seme ta alabak aitarekin ikasi; gaur bi semeak "kinésithérapeute" fisioterapiagile ditugu, bata Maulen, bestea Baionan. Aitaren gisa Baionako merkatutan ibiltzen da ta Peirehorada - herrian Euskal Herritik hurbil ibiltzen; Maulekoa kirol ixtriptuetan trebea da - aitaren moduan -, aita berriz astearte eta ostiral arrastriritan bisita hartzailea zen duela 9 urte. Bere jakituria hiru gauzatan oinarritzen du: anatomiaren ezagutzea, eskurarekin hauskurak ezagutzea, eta hezurak beren lekuan ipintzea edo hautsiuneak buruz buru jartzea. Holako hezur eragiketarik prehistorian hasita non nahi ikusten dira hezurtzetan, sendakuntza fakultateak baino lehen eginak. (Beste liburukian ikusiko dugu noiz bereizi ziren herri-kirurgia eta fakultatekoa nagusitu).

I.3. Intxauspe, larru sendatzailea

Jaun horrekin nahikoa ikasi dugu, berak bere poterean ez baitu itsutuki sinesten. Bi gauza ondo bereizten ditu elkarri lotuak daudenak: erritua - eta jendeak nahi du - erran nahi baita bere kasuan mahain bati ingurua egitea, eta pagan - otoitza eta pater-ak tartekatuz, gerriko bat lepo inguruan ipintzea "minaren estekatzeko", baina besteetik uste du asko laguntzen duela gaixoari konfidantza ematea, erritua egiten duen egongela txukun, garbi eta eder izatea, baita sendaketa egin baino lehen gaixoarekin apur bat hizketatzea. Pentsatzen du sendatzen ez badu ere mina ezitzen duela halaxe. Azalminez arduratzen da gehienbat ekzema eta txingola (zona); azken urteetan ustegabeko sendaketak izan ditu, ohiturazko txingola minetik kanpo. Besteen sendabideez eta medikuekin dituen harremanez mintzatu zaigu.

II. ETXE-SENDAGINTZA

J.M. Barandiaran-en itaunketa erabiliz hasi gara, baina lehen berriemailearekin galdera gehiago gaineratu dugu sexuaren ingurukoak eta haur edukitzearen ingurukoak eskaz baitziren. Hiru jendetara mugatu gara - nahiz eta Joanes Casenave-k beste liburukian sailkapen desberdinean erantzun digun - eta hor gelditu ez luzatzeagatik.

Gure aukera izan da neskak gazte baten galdekatzeko arteko adinean zegoen etxekandere bat, eta aiton zahar bat. **Neskatilak**, berak uste baino gehiago zekien - entzunik edo ikusirik - eta nahiz Maulekoa izan, erdaldu gehiengo dagoen herrikoa, aski ongi ihardetsi ere, ze bere jakiturian, oraingo errezetak, oso aintzinakoekin batean agertzen baitira - sorgin-errezetak konda - baita erakusten baitigu, ez erantzunaz, herrisendaketa gure belaunaldiko praktikak galtzera doatzala.

Bigarrena **etxekanderea**, ez da aurrekoa bezain Unibertsitari tituludunak, baina bere garaian ongi eskolatua, frantses erdara eta euskara menderatzen dituela. Bere jakituria gehienbat, fakultateak - garai batean - etxekanderei erakasten zuena da, sorginkeria gabekoa, eta errezeta ximpletako (bentosa, kataplasma, tisana ta abar. Hor Europar sendakuntzaren ezagutzea ertaina badago, eta berezitasun gutxi non ez den, kanela, baratxuri eta piper erabilera eta beharbada milgorra, argizai, eta sufrez egindako errezeten oroitzapena. Gure lehengusina horrekin, ordea, sendabellerrez urriago gaude, berak baitio, orduan, andere batzuek baino trebeagoak eskolatuagoak zirela belarren erabileran. Ohartzekoa da - sorgin auzi handirik ezagutu ez duen Zuberoan - sorgin esateko belhagile "**belhagile**" hitz nahiko berria erabiltzen dela. (hitz elkartu zaharretan beti **bederroa** erabiltzen da: bedats, bedaro, bedazi, bedaka, bedoki eta abar.)

Hirurgarrena, **aitona**, Zabalain J.L. Davant euskaltzainaren aitak erakutsi digu, zaharrena izanki, 1914.eko gerla garaian eta aurrean, herri-sendagiletara zoatzila asko, merkeago zirelako eta berak azalmin sendatzailearen, begi sendatzailearen eta hezur zuzentzailearen zerbitzuak erabili ditu eta sorgin errezeta batzuek ematen ditu. Bere erantzunetan agertzen da gizaldi hasierako mixeria, emakume izorren hiltzea, izurriteak (gripe, tuberkulosis) tetanos bildurgarria eta gaizki jatea.

III. FAKULTATE SENDAKUNTZAK DIONA, BAZTER SENDAKETEZ

Guztiek azpimarratu dutena izan da, euskararen ezagutzaren garrantzia orainarte eta nola-beharrezko euskaltzale-egin ziren batzu. **Apotekaria** izan da, - mintzatu nahi izan zaigun sendagilea haina - sendakuntzaren mugak ipini dizki-gunak eta herri-sendakuntza gaitzetsi ez dutenak; apotekariak, ordea estimatzenago ditu sasi-sendagile batzu homeopatiaren bidetik dabilzanak baino eta Ekialdetik etorri Yoga ta holako orientalkerietan ez du gehiegi sinesten. Aintziña jendeek aholku eskatzen ziotela dio, baina azken urteetan eta jubilatu baino lehen ia inork ez zuen aholku beharrik, gaitxotu eta - dirurik eduki ala ez - segurantz hor dagoelako. Gure Apotekariak Joanes Larregle-k, euskara onean, dio ez duela sineste gogorregia erremedio askoren bertuteetan, baina halaz ere dio gaur apotekari askok sendagailuak pata-ta edo lejia bezala saltzen dituztela. Saltzaile-kaxazain lana egiteak kaltegarria da, ezin haren ustez sendakuntza, gogori, konfidantxari zuzentzen zaio gorputzari bezainbeste eta jendeak gaur bere gorputza makina bat dela uste izatera iri-txi baita. Gero bildur ematen dio gaurko medikuntzan gene-tika manipulazio eta zelula-gaixoen lapurketa entzuten due-larik aipatzen.

Larregle jaunak, uste du ez dela nahikoa erremedio barruan paper albiste emaile bat ipintzea, jende gehienek ez baitute irakurtzen, eta irakurtzen dutenean ez beti ulertzen farmazia gizonak hitzegin behar luke gaixoarekin, ezen bes-telan gorputz-makinari ber-sendagailugintzan ogenegilea ematen zaiolako, berebil bati olio edo ura bezala.

Bigarren fakultate gizona, **sendagilea** euskalduna Akozoberri jauna izan da. Honek, Casenave edo Aguerre-n alderantziz egin du bidea, fakultate -sendakuntzatik, sendakuntza eztiara, gaur akupuntura ta homeopatia erabiltzalea baita. Honek ez du ordea, sasi-sendagiletzaz apotekariak zeukan ikuspegi berdina, dio ez dituela ezagutzen, apotekari-zuhurrak ziolarik, sendagileetan jakintzadun ala sasi-dun izanki bietan onak eta txarrak daudela. Naski, gure sendagileak gaurko sendakuntzaren mugak ondo ikusten ditu eta sendagile-gaixo harremanak zehatzki aztertzen.

Etxe sendakuntza honen balorapen garaian - nahiz biologilaria izan - sendagile horren eta apotekari horren lekukotasunak eta iritziak asko baliatu zaizkit eta horrez gain berdin Elhorga Jauna Pauen apotekari denak sendabelarrez egin duen irakurketa ere, zuzenketa ta ohar batzu, eranskin batzu ere eman dizkidalako. Hiru jende horien iritzia, frantses etnologilarisa harenak baino jakingarriago izan zait, ezen andere harek esan baitzidan nere berriemaileak nonbait gezurrez zebiltzala, nik bildutakoak, paristar antropologilari eta teorilari baten sailkapenean ez baitziren sartzen. Nik behintzat konfidantza osoa eman diet nere hamar berriemailei, nahiz jakintza mundukoak nahiz herritarrak izan, ezen erdaldun horrek jakin behar lukena da lehenik ama-hizkuntzetan dela lana egiten, eta "logo" nekez izan ditekela "grafo"ren elurretan ta izotzetan, lohí eta eurietan ibili gabe.

IV. DIAKRONIA. HERRI-SENDAKUNTZA AINTZIÑAKOA

Hau izan zen nere atzerketa-ikerketa urratsean lehen ibili bidea, alegia nere tesia (argitaragabea) Anatomia **hizte-gia euskaraz** abiatu nuenean duela hogeien bat urte zube-

roerazko testu frango aurkitu nuen, sendakuntzaz eta osasunaz, bereiziki hamaseigarren gizalditik, hemeretziraino. Garai haietan naski sendakuntza moten mugak ez ziren batere ageri, edota eraiki berriak. Esaera zaharretan osasunari eta gaitzari buruzko iritziak batu egin ditut, XVI. mende azkene-ko Zalgizenak, XVII. mendeko Oihenartenak (zuberorazkoak bakarrik beti), eta XIX. mendeko Intxauspe-Irigaray-enak. Gero eliza liburuetan osasunaz, sasi-sendakuntzaz, eritasunaz zatitxoak aurkitu ditut, bai XVII. gizaldian Maitia-ren pro-notan, bai XVIII. mendean Egiategi-ren obran.

Sendakuntzako liburu ez izan arren zubererazko **astolasterretan** higie, barbero, apotekari eta sendagile, emagin lanetaz ohar asko batu ditut (40or.) Patri Urkizu-k eman bildumaz baliatuz. Komeria horietan konduak eta errezetak aurkitu ditut (gehienak benetakoak); halere, **Pantzarten komerian** hiru sendaketa modu eskaintzen zaizkigu purgatzeko:

- sasikoa: idi gernua
- etxekoa: gatz purga
- apotekakoa: landare purgatzaila (benetakoz) egina.

Egiazko sendaketa **errezeta bilduma** bi aurkitu ditugu bata oso ezaguna, hemeretzigarren mende azkenean Althabegoity-k sendabelarrez egindakoa - bildutako dokumentu gehienek gisa zubereraz - baina Kneipp aleman botanistaren lanez hobetua dela erakutsi duguna. Gero zaharrena XVIII. mendeko euskaraz, XIX. mende hasieran aldatutako **Errezeta bilduma, Bidaverena**, lau zatitan emana: sendabelarrak, harrien harri preziosen erabilera, fisiognomiaz, konplexionez tratatuak, eta erakutsi dugunez gaztelaniazko Alberto Magno batetik itzulia (agian, bigarren itzulpena da, lapurdierazko hondakin batzu baitakarzki).

Beraz horiek erakusten digute, herri-sendagileak idatzizko iturriak erabiltzen zituztela, aberen eta jenden sendatzeko. Herri-sendakuntza mundua ez da iñolaz ere itxia; zenbateraino sortzailea den ez da errez esatea: aintziña badakigu herritik jakintsuetara errezeta batzu pasatu zirela (kinina, aspirina eta abar). Guri bitxiena iruditu zaiguna da nola, hainbeste urteez baztertu egin den fisiognomonía berriz erabiltzen den langileen kontratatzeke, nola - baina susmoz gauden - Ameriketako harri preziosak erabiltzen dituzten sendatzeko, errauts bilakatu ondoren (silikatak dira asko erdi-preziosak eta edozein silikata on liteke, baina ez ote da hor psikoterapia berri bat). Gero sorgin sendagailuak aipatzen Elhorga jaunak esan digu aintzinako hezur-autsak eta adar-autsak (keratina) erabiltzen direla gaurko sendagailuetan, eta gure zuberotarrek hain goersten zuten Erremülea (Erromeroa) berriz modan dagoela.

Gero hogeigarren mendean kontutan hartu behar litake, eta lana ibai bat bilaka ez zedin, ez dugu egin, baina Etxepare eta Irigarai medikuek nafarreraz sendakuntzaz asko idatzi dute gerla aurreko **Eskualduna** delakoan. Gaur, berriz herri-sendakuntza gainetik ixurtzen digute beren jakituri zehatza, baliagarria Xabier Agirre bezalakoek eta Irratietan ere, euskaraz, zernahi aholku entzun liteke euskaraz osasunaren hobetzeko, sendatzeko. Zuberora, ordea, ez da gehi-go euskaraz irakurle eta gizaldi honetan gure herriko sendagileek ez dute euskaraz ezer idatzi. Ahozko sendakuntza-kulturaren ordea, jaiotzeari, drogari, alkoholari, zaharrierari buruzko bilkurak egin ohi dira, irakurtzen ez duenak entzun baitezake.

Aintziñako iturri eta bainuez azterketa bat egin dugu gaurkoez, ordea ez, talde omen dabilalako lan hortan; gero ospitaleen jatorriaz XI-XIII. gizaldiko aipamenak egin ditugu, Santiago bideari beti lotuak direnak, eta Zuberoan behintzat nolako jarraipena izan duten; gero Thillaud mediku jaunak egin azterketarekin konparaketa batzu eginaz, erakutsi dut nola XVIII. gizaldian, oraingotasunez antolatzen hasia zen sendakuntza Zuberoan (Emaginen diplomak, barberoen diplomak, "sasien" aurkako debekuak, barbero / apotekari / sendagile ofizioei bakoitzei maguak ipintzea ta abar).

Gure ikerketari ohar eta iruzkin batzuk

Lehena:Gehienetan ez da herri-sendakuntza eta sendakuntza eztiaren arteko etenik; bakarrik goitik-behera datorrenean ezti-sendakuntza praktikatzaila, ekialdeko ezagutza gehiago sartzen da (akupuntura)

Bigarrena: Sasi-sendagileek ere arrazoinaltasunaren mintzaldia daukate: "jakituria" "eskua" "pazientzia" garbitasuna, bizi higieena, konfidantza aipatzen dituzte eta denek anatomia ikasitakoak dira.

Hirugarrena: Sendaketak lortu dituztelako, beren "pote-rean" apur bat sinesten dute.

Laugarrena: Nahiz sasi, nahiz jakintza sendagile izan asko ikasi dugu horien "itxaron-gelan" gaixoak entzunaz eta halere eri guztiak ez dutela sendagilearen gandik bakarrik sendagailua igurikatzen.

Bostgarrena: Kezkagarria: etxe-sendakuntza eta higieenaren atzerakada, gizarte maila beheerenean, tabakoaren, alkoholaren eta gehiegi jatearen kalteez ezjakintasuna. Lehen jendeak elkarri galdezka edo irakurtzen saiatzen baldin baziren, orain, deseuskalduntzearekin irakurketa ia galdu da, beste hizkuntzetan.

Seigarrena: Egunero jendeak - modan baita - tisana erosten du bai, bere etxeko ezkiak edo etxeko baratzak ematen dituenak erosten dabilen baseritar gaztea.

Zazpigarrena: Herri-sendagileek gizarte maila guztiak huki-tzen badituzte, ez hainbeste ezti-sendakuntza berriek. Bestalde ez batek ez besteek sasi-gaixoei ez diete, zortzi hamar egun langelditze ematen (ihizera, belarretara, edo txerri hiltzera joaitako) baina benetako gaixoei ezinbestean bazter-sendakuntzara joaiten dira. Hori bereziki nabarmen da homeopatia eta akupuntura delakoetan.

Zortzigarrena: Herri-sendagile batzuk erabilka nahasketa darabilate, belarra gehi lasaialdi, gehi esku sendaketa fisioterapia gehi hezur-zuzentzeak eta abar.

Bederatzigarrena: Euskal testuetan oinarrituz ikusi dugu nola ohiturazko herri-sendakuntza, fakultate sendagintzarekin sinbiosian bizi zen: halaxe barberuak herri-sendakuntzatik bestera igarotzen dira, irakurketaren bidez (XVI-XVII.m.) legetasunaren eta ikasketen bidez XVIII.ean, berdin emaginei XVIII. gizaldian azterketa bat eskatzen zaie.

Hamargarrena: Ikusi ditugun euskal testuetan bizpahiru zati eta **Speculum** batez kanpo jakituria gehiena arrazoinaltasunaren barruan geratzen da. Apezek, eta beren eraginez agian, beste joerak baztertuz.

Hamaikagarrena: Euskal Herriko higieenale medikuen lana, gure inkestetan ageri da, etxekandereek eta gizonek batzutan ere bentosa, kataplasma, tisana, igurtzitez, purga, benda ipintzen baitakite, XIX. mendetik goiti.

Hamabigarrena: Sendakuntza ikasteko ikasketak hain luze, garesti eta urriak izanki sendagileek beren monopolioaren zaintzale gogorrek dira, lehen barberuekin ta apotekariekin egiten zutena gaur beren arteko, eta akademiatik kanpoko "sasien" aurka jauzten baitira, batzutan gaixoen babesteko ezen etsitua dagoenarekin txarlatan, baratariak lana errez egin baitezake. Batzutan ordea hala nola Frantzian apotekariak sendabelar saltzaila diploma galerazi zutenean ez zen gaixoen onerako egin, orain ikusten dugularik -arrixkuekin - merkatuetan edozein sendabelar saltzen edota kantari bat medikuntzaz idazten.

Hamahirugarrena: Naski segurantzak ordaintzen ez dituen sendaketak gaixoaren bizkar, baina sasisendagileek ez dute ordainsari finkaturik, eta batzuk sendatu ondoren ordaintzea eskatzen dute. (Medikuntzaren azkena lizateke ohitura heda baledi, eta sendagileek berdin egin bazelate).

Ondorioz

Argi dago

- Herri-sendakuntza, herri-sendagile gutxiak praktikatzen dutela, eta errez galdu ditekela.
- Etxe-sendakuntza, ia galduta bezala eman dezakegu leku askotan eta ezin dezakegu auto-medikatzea hortan sar. Kezkagarria da gazte ezkonduen ezjakintasuna beren anatomiaz, beren osasunaz, denentzat pildorak balira bezala eta telefonu dei batekin sendagilea baitator.
- Herri-sendagileen arrakasta berria ez ote dator euskal gizartetik, oraingo kaletar erdaldun sendagileak baino, askoz hurbilago direlako.
- Sendakuntza eztiaren jakintza balorea dudatan ipintzen bada, zer pentsa, sendagile klasiko batek Zuberoan egiten duena, alegia denbora pasatzen langelditze ematen edo pentsioak lortzen, adibidez: goizetik arratsera uso ihizen, basahuntz eta basurde ihizen dabilanari, alegia ezin dela zutik egon nekezaritzan aritzeko. **Geo** aldizkarian Pierre Accoce-k idatzi bezala etxe guztietan merezitu gabeko pentsioak daude Zuberoako Basaburuan, sendagileari arkumea eta gazta emanaz erosiak. Non dago hor medikuntza, non deontologia?
- Sendakuntzak gorputz-gogoaren osotasuna hukitzen duen ezker, eta geroago eta latzkiago, giza eskubide, balore eskubide deontologiazkoak ez dira baztertu behar, eta hor **diruak** bere eragin txarra izan dezake edozein motatako sendagilentzat.
- Ba al dago euskal sendakuntzarik?
Badago sendakuntza bat Euskal Herrian, baina euri tanta bat sudur gainera erortzen zaigunean nork esango du nondik datorren, noiz hasi den? Mendebaldekoa dela, bai naski, baina nola jakin ekialdeko, indietako eragina ez denetz zuzenean edo grekoen edo latinen bitartez gureganatu: ideiak ibildariak dira odeiak bezala. Eta nondik datoz gure herrian sustraitu diren jakituriak, zer lainok zer eurik busti ditu?
Zuberoako herri-sendakuntza jakituri argal, makal, honek iraun du; duela ehun urte Frantziak abiatu deskulturatze prozesuan idatzizko euskal testuen iturria agortu da, gero ahozkoa egiten ari da, gure frantses nagusiek beren joko-kultura - Rock eta Walt Disney na - sartu digute, amerikatar moduan

pentsatzen dugu: egun batean ordenagailuak sendagilearen lekua harturik, drugstore supermerkatua farmaziaren orde, kultura ez da ez herrikoa ez askatzailea izango.

Euskal Herriak, orainarte, kanpoko maileguak, ekarpenak, berritasunak iresten, berekotzen jakin du, baina ez al dago irrikkua herri-jakintza museotan, artxiboetan lo geratze-koa.

Gure mendebalde herrietan jendea aintzina baino hobeki bizi delarik, asti gehiago daukalarik, komertzio ta ideologia arrazoin okerrek bere harpena, bere minberatasuna, bere sorkuntza antzutzen dituzte. Ez al da harrigarri jakintza klasi-koen okerrek bizirik atxikitzen dituztela, herri-jakintzak? Nere saio honekin, besterik ez badut egin ere, uste dut erakutsi dudala nola Zuberoako herri sendakuntzan berritasunak sartzen ziren eta diren. Corpus zabal honetan, ziuurrik, ondolik etorriko zaizkigu sakonkiago aztertuko dutena gaia, hortarako ez bada ere balia dadila lan hau

Santa Grazin, 1995.eko Abenduaren 30a

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

A

- AGIRRE (X.) *Osasunbideak, Medikuari galdezka*, Elkar, Donostia, 1986.
- ALTHABEGOITI *Ciberouko Botanika edo lantharen jakitaita*, Imp. Lamaignère, Baiona, 1900.
- ALTUNA (Dr. M.) *Gizonaren osasunean ordikeriaren kalteak*, Azpeitia, 1901.
- APALATEGI (J.M.) "Introducción a la historia crítica de la producción oral vasca", *Ethnica* 17, Barcelona, 1981.
- APALATEGI (J.M.) *Antropologoa hirian*, Bilbon, Ed. Kriselu, Donostia, 1987. 190 orr.
- APALATEGI (J.M.) *Etnografiako galdeketa baterako gidaliburua*, (Barandiaranen galdeketa) Antropologiaren euskal bilduma (A.E.B.) Donostia, 1985.
- APALATEGI (J.M.) *Introducción a la historia oral: kontzaharrak*, Ed. Anthropos Barcelona, 1987. 280 or.
- APALATEGI (J.M.) *Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa*, (Ataungo herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak, 4 tomo, G.A.K. Donostia, 1988.
- ARANA (A.) *Bidarraiko Harpeko Saindua*, Ed. Haranburu Altuna (A.E.B.) Donostia, 1985.
- ARANBURU Y BAGO *Manual de higiene y Medicina popular*, Bergara, 1889.
- ARANBURU Y BAGO *Osasun lequeac edo Medicantzaco arguibideac* (bi medikuen euskarapena)
- ARANTZADI-JAKIN taldea *Natur zientzia hiztegia*, Oinati, 1976
- ARANZADI (T.) "Nombres de plantas en euskera" *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV), 1930, XXI, 449-451. orr.
- ARBELBIDE (X.) "Notes manuscrites sur les pèlerinages d'Otsarti (Iholdi) et Bixintxo (Chapelle Saint Vincent à Hélette)". *Groupement Aquitaine Santé* (G.A.S.) Pau, 1984.
- ARELLANO (P.) "Folklore de la merindad de Tudela" *Eusko-Folklore* XIII, *Eusko Ikaskuntza*, Gasteiz, 1933.
- ARIN DORRONSORO (J.) "Kristauen gaitzak" E.F. 29 Donostia, 1980.
- ARREGI (G.) "Prácticas de medicina popular en ermitas", Donostia, *Eusko Ikaskuntza*, 1985.
- AUTREMENT (aldizkaria) "Autres médecines, autres moeurs, l'explosion des nouvelles pratiques de santé", 85 zbk., Paris, 1986.
- AZKUE (R.M.) *Euskal Herriaren Yakintza*, IV. alea, 1942/1971 (laugarren alean "Erriaren sendakuntza"), Madrid, 1971.

B

- BARANDIARAN (J.M.) *Obras completas* (lehen bi aleak), Bilbao, 1972-1983.
- BARANDIARAN (J.M.) *Etnografiako galdeketa batetarako gidaliburua* (J.M. Apalategi itzultzaile) Ed. Haranburu Altuna, A.E.B. Donostia, 1985.
- BARRIOLA (I.M.) *El curandero Petriquillo*, Instituto de Historia de la Medicina, Salamanca, 1983.
- BARRIOLA (I.M.) *La medicina popular en el País Vasco*, B.R.S.V.A.P., Donostia, 1952.
- BARTHETY (Hilarion) *La sorcellerie en Béarn et dans le Pays Basque, suivie des pratiques de sorcellerie*. Ed. Ribaud, Pau, 1879.
- BELA (J.) *Commentaires à la coutume de Soule*, 1667 ingurukoa. Eskuidazki argitaragabea, Musée Basque, Baiona.
- BELA(J.P.) *Recettes et secrets divers recueillis en faveur des Pauvres par les soins de M. le chevalier de Bela*, 1776. (Pauko Archives départementales des Pyrénées Atlantiques, cote I. J. 62 (3 eta 5) argitaragabea).
- BERGER (P.) "Le rôle des représentations savantes et populaires de la tuberculose dans la mise en place des institutions de 1880 à 1939" *Premier congrès d'Ethnomédecine*, Novembre 1983.
- BIDAVE-GOIHANEIX *Sendagailu erregeta zubereraz*, Bibliothèque Nationale, Paris, (manuscrits celtiques et basques n° 117, 90 orr.) XVIII. mendeko zubereraz.
- BONNAIN(Rolande) "Une thérapeutique populaire du zona dans le Sud-Ouest, 1850-1984" in *Lavedan et pays Toy*, 16. zbk. 1984 (167-170 orr.)
- BORDES (Fr.) "Le livre des remèdes de Labadie - Contribution à l'histoire de la médecine populaire landaise au 18ème siècle". *Bulletin de la Société de Borda*, 387. zbk., 1982 (399-413 or.)
- BURTON-ALDAZABAL S. *Animali pozointsuak*. Ed. Sendoa, Donostia, 1980.
- BOUDA K. BAUMGARTL D. *Nombres vascos de las plantas*. Universidad de Salamanca, 1955.
- BOVARD (Maya) Dr. *Les représentations du nez, de la gorge et des oreilles dans le corps et la santé en Pays Basque et leurs thérapeutiques traditionnelles*. Osakidetza doktoradua, Bordele, 1986.
- BRUNEL (CLOVIS) *Recettes médicales alchimiques et astrologiques du XVème*. Toulouse, 1956 (gaskoineraz).

C

- CAPET (C.) "Il y'a "patient" et "patient", différentes manières de prendre sa santé en charge" *GERM* Bruxelles, 1985 (193. zbk., 76 orr.)
- CEDELLE (L.) "Le corps et le santé dans les proverbes et dictons basques et béarnais". *Groupement Aquitaine Santé* (G.A.S.), argitaragabea.
- CELERIER (dr. J.P.) *Espace de la maladie et temps du progrès dans un village de montagne*: Lescun. Tesina, Pau, 1979, 104 orr. (Pauko Bibliothèque Universitaire).
- CHARBONNEAU (H.) "Les saints guérisseurs du Béarn et du Pays Basque" in *Revue d'histoire et d'Archéologie du Béarn et du Pays Basque*, Pau 1936, 170. zbk.
- CHASSAIGNE (F.) *Plantes médicinales, science, magie et superstition*, Farmazia doktoradua, Bordele II. Unibertsitatea, 1984, 42. zbk.
- COURRIER DES PLANTES MEDICINALES EN MONTAGNE (sendabelar saltzaileen aldizkaria), 1984. ezkeror.
- CRISTOBAL (R.) "Encuesta etnográfica sobre el primer año de vida del niño", *Etniker* 4, Bilbao, 1979.

D

- DEGUIRAL (R.) "Le pèlerinage de Saint Jacques de Compostelle et son influence sur notre équipement hospitalier" in *Annales de la Fédération Pyrénéenne*, 1942-1943.
- DE LANCRE (P.) *De l'inconstance des mauvais anges et démons*, Bordeaux, 1611.

DELAVEAU P. BAILLEUL F. *Fiche d'enquête pour l'exploration des pharmacopées traditionnelles*. Plantes Médicinales et phytothérapies, delakoak, 1973, 13. zbk.

DEMONET (M.) DUMONT (P.) LEROY-LADURIE (E.) "Anthropologie du conscrit, une cartographie cantonale" 1819-1830 *Annales E.S.C.*, Paris, 1976.

DESPLAT (Chr.) "Médecine du passé, médecines populaires" in *Adour-Magazine*, Pau, 1982, 4.zbk.

"Le chevalier de Bela, seigneur de village (sic.) et philanthrope" *Bulletin des sciences et Lettres et Arts de Baiona*, 1973.

DIEUDONNE "Médecine populaire au Pays Basque" in *Gure Herria*, Baiona, 1954 (XXVI. zbk. 193-203. orr.)

DONOSTIA (J.A.) "Médicos y medicina popular en el País Vasco" *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Iruinea, 1974, VI. zbk.

"Quelques notes au sujet des médecins et médecines populaires en Pays Basque" in *Gure Herria*, Baiona, 1961 (14-32. orr.)

DOS SANTOS (J.) "Les médecines populaires ne rejoignent pas les parallèles" in *Autrement*, Paris, 1986, 85. zbk. (dogmakeria hutsuz zer behar den aurkitu herri sendakuntza ikertzen denean)

DUBARAT (V.P.) *La commanderie et l'Hopital d'Ordarp dep. du Monastère de Roncevaux*, Pau, 1887.

E

EGIATEGI (J.) *Aberastarzun güzien giltz bakotxa*, 1785 (Hitzaurrea L. Mitxelenak Egan-en emana, baina eskuidazkia Gipuzkoako Foru Aldundiaren liburutegitik galdua).

ERDOZAINZI-ETXART (P.) *La médecine populaire au Pays Basque: représentation d'une guérisseuse-voyante à Chéraute (Sorhoeta) Institut d'Etudes Basques*, Baiona, 1986.

ERKOREKA (A.) *Medikuntza antropologia*, Ed. Haranburu Altuna, A.E.B., Donostia, 1985.

"Prácticas de medicina popular en santuarios del área de Bermeo" *Etniker* 5, Bilbao, 1981 (83-101. orr.)

"Medicina popular en el País Vasco: bibliografía básica" in *Cuadernos de Sección de Antropología, Etnografía*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1982.

Medicina popular en una localidad costera vasca (descripción y análisis de sus prácticas), Salamanca, 1983.

El mal de ojo en Euskal Herria, Instituto de Historia de la medicina española, Salamanca-Bilbao, 1984 (Euskal medikuntzaren historia mintegiarekin batean).

Análisis de la medicina popular vasca, Ed. Labayru ikastetxea, Bilbao, 1985.

"Medicina popular", *Euskaldunak* 5. Donostia, 1985.

ESTIENNE (C.) LIEBAULT (J.) *La maison rustique*, Paris, 1583, Dassance lapurtarraren 1697.ko Abereen liburuaren iturri bat.

ETCHEPARE M. *Glossaire des termes basques de médecine et de pharmacie*, Doktore tesia, Bordele II unib.

EUSKO JAURLARITZA *Eusko komunitate Autonomoko osasun mapa*. D. Osasunketa ta Gizarte aseguratza, Bilbao, 1982.

EVENEMENT DU JEUDI L. "L'explosion des médecines douces" (sendakuntza ezien zartatze ta hedatzea), Paris, 1985, 57. zbk.

F

FEDERATION NATIONALE DES FOYERS RURAUX-EPI *Enquête sur la médecine populaire par les plantes: questionnaire et son emploi*, Paris, 1985.

FERNANDEZ (M.) *Las plantas en la medicina popular navarra húmeda del Noroeste*. Eusko Ikaskuntza, Iruinea, 1981.

FONT y QUER (P.) *Plantas medicinales. El dioscóridos renovado*, Barcelona, 1981.

G

GIL (L.) *La medicina popular en el mundo clásico*, Madrid, 1969.

GIFFORD Douglas "El mundo de las brujas" and some sociomedical aspects, 1972 Ey E VIII.

GOICOCHEA (A.) *Las enfermedades cutáneas en la medicina popular vasca* E.H.M.M., Bilbao, 1982.

GRANDES Fortunato *Historia alavesa de antaño, los saludadores*, Euskalerraren alde, Donostia, 1928.

GRANJEL (L.) *Humanismo y medicina* (Estudios de Historia de la medicina), Salamanca, 1983.

Historia de la medicina popular vasca, Salamanca, 1983.

H

HECKERT (H.Von) *Lunar rhythms of human organisms*, Leipzig, 1961.

HOURCADE A. *Flora biarnesa*, Ed. Per Noste, Orthez, 1984.

I

IHARCE (Dr.) *Miricuntzaren gaineko populacionen faltac*, Paris, 1783 (bakarrik izenburua euskaraz).

IRIBARREN (J.M.) *Batiburillo navarro*, Zaragoza, 1943.

IRIGARAY (Dr. F.) "Larreko", *XXgarren mendeko Nafarroako idazleak*, Iruñea, Principe de Viana, 1958.

IRIGARAY-IMAZ (J.) "Estado actual de la onomástica botánica y popular en Navarra" in *F.L.V.*, Iruñea (19. zbk.tik 41.era, zenbaki gehienetan, ibarka emana)

L

LABORDE (J.B.) "Les sorcières" en *Béarn, Gascogne et Pays Basque*, Pau, 1936, 167. orr.

LAKOIZKETA (J.) *Diccionario de los nombre euskaros de las plantas*, 1888.

LAPORTE Dr. *Pathologie de la main du joueur de pelote*, Document Groupe Aquitaine-Santé, Pau, 1985.

LASALLE (P.) "Notes sur les eaux minérales de Garaibie. arr. de Mauléon" in *Mémorial de Pyrénées*, 5.9.1857.

LEGRAND (T.) "La guérison des écrouelles" notes sur un curieux document des Archives Municipales d'Irun touchant la guérison des écrouelles par le Roy de France. in *Revue des Pyrénées XVI*. Toulouse, 1904.

L.E.K.T. ko herri medikuntzaren mintegia, U.E.U. Ustaritz, 1976.

LEKUONA (M.) *Idazlan guztiak* Z. 2. alea. Eusko Etnografia, Gasteiz.

LEVET-GAUTRAT (P.) Besson H., Voldman D. *La médecine familiale au début du siècle*. Ed. Scientifiques et juridiques, Paris.

LITTER (M.) *Farmacologia experimental y clínica*, Buenos Aires, 1973.

LOPEZ DE GUEREÑU (G.) *Botánica Popular Alavesa*, Arabako Aldundiak, Gasteiz, 1975.

"La medicina popular en Alava" in *Peñafloridako Kondeari omenaldia*, Museo de San Telmo, Donostia, 1956.

LOUX (F.) *L'ogre et la dent*, Ed. B.L. Nancy, 1981, 187 orr.

M

MANDORLA (J.) SEMPERE (F.) *Le guide des guérisseurs et autres thérapeutes*. Ed. Ph. Lebaud, Paris, 1986.

MANTEROLA (A.) "La escuela vasca de Etnología: Barandiaran testigo excepcional in *Euskaldunak*.

MINVIELLE (M.) Dr. *Traité de puériculture* (euskaraz), Baiona, 1940. L'alcoolisme en Pays Basque (frantsesez), Baiona, 1943.

MAITIA (Mgr) ta BELAPEYRE (A.) *Pronus diebus dominicis...* Orthez, 1676 (osakidetza aholkuekin).

MICHEL (Fr.) *Le Pays Basque*, Paris, 1857.

M.... *La médecine et la chirurgie des pauvres* qui contient des remèdes choisis, faciles à préparer et sans dépense, Ed. Lecomte, Paris, 1758.

MIRANDE Jon "Vasconicae erotici glossarii tentamen" in *Igela*, Paris, 1962.

MOGEL (J.A.) *Peru Abarka*, Bilbao, 1880, Zarautz, 1956. (Iehenbiziko herri-sendakuntza deskribapena lizateke, astolasterrak ez balira ta Bidave-ren manuskritua.)

MOURGUIART apezka "Forces dites occultes", *Hitzaldia*, Kanbo, 1986.

N

- NARBAIS-JAUREGUY (F.) *Médecin par expérience. Conseils traitements pour hommes, femmes et enfants*, Urte, Iekurik gabeko, liburuxka.
- NOBLIA Argitxu (Dr.) *Le suicide en Pays Basque*.
- NOGARET (J.) "Note sur Ahusky" *Mémorial des Pyrénées*, 23.9.1857.

O

- O'QUIN (P.) *Syndicat de Soule et Fne d'Ahuzquy*, Pau, 1974.

P

- PARROT (A.G.) "Le climat du Pays Basque français de 1851 à 1940" in *Bulletin du centre d'Etude et de recherche scientifique de Biarritz*, 1958-1960.
- PEILLEN (Tx.) "Heriotza biologiaren ikuspegitik" in *Elhuyar*, 1.zbk. 1974, 2. zbk. 1975, Donostia, 20 orr.
- "Zaharreria haren ezagupideak, *ibidem* 3. zbk. Donostia, 1975, 5 orr.
- "Bihitik irinilat, irinetik ophililat" (irin ogi talo ta beste) in *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1977, 9. orr.
- "Alberto Magno euskaraz" in *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1976, 15 orr.
- PEILLEN (Tx.) "symbolique de la dénomination du corps en langue basque", *Congrès des Sociétés Savantes, de Montpellier*, Paris, 1984.
- PEILLEN (Tx.) "Arima herratuak euskal sinesteetan", *Congrès international de Mythologie*, Baiona, 1985.
- PEILLEN (Tx.) *Animismua Zuberoan*, Ed. Aranburu Altuna (A.E.B.), Donostia, 1985, 110 orr.
- PEILLEN (Tx.) *Lexique de l'anatomie en langue basque*, Bordele III, 1981. Ed. Lille-Université - Didier édition, 1992, 788 orr
- PIETTE (D.) "Le rhume: savoir populaire, savoir scientifique" *G.E.R.M.* Ed. Bruxelles, 1972, 121. zbk.
- POQUE (Dr. H.) *Histoire de la médecine en Béarn*, Lyon, 1932.
- PRESSAT (Fr.) *L'usage des plantes en vallée d'Ossau*, Enquête Documentation G.A.S. Université de Pau, 1986.

R

- REVUE D'ETHNO-MÉDECINE (Société d'ethnomédecine) 57 rue Cuvier, 75005 Paris, 1978.an hasita; A. Eppelboin zuzendari.

S

- SAINTYVES (P.) "Le folklore des eaux dans les Basses-Pyrénées" in *L'ethnographie*, nouvelle série, 30 zbk., Paris, 1935. (euskal iparaldeko senda - eta azti - urak)
- SANCHEZ (J.A.) *Santos sanadores*, Ed. Ciba, Barcelona, 1948.
- SARRIONAINDIA (M.) "Prácticas de medicina popular doméstica en Amorebieta" Labayru, Ed. *Etniker*, 5, Bilbao, 1981.
- SATRUSTEGI (J.M.) "El mercado de las sanguijuelas en el País Vasco", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Iruñea, 1972
- SATRUSTEGI (J.M.) *Medicina popular y primera infancia*. Iruñea, 1978
- SATRUSTEGI (J.M.) *Euskaldunen seksubideak*. Ed. Jakin, Oñati, 1975.
- "Aspecto práctico del agua" *C.E.E.N.*, (1) Iruñea, 1969.
- "Medicina popular y ginecología" *C.E.E.N.*, Iruñea, 1977
- "Hallazgo de una elegía vasca y la medicina en el País Vasco" *BRVAP* 1. zbk. Donostia, 1963 (XVI. mendeko Iruñeako sendagileez jakingarria).
- SCHLOSSER (Dr. L.) *L'art ancien de guérir*, Ed. France-Empire, 1984, 214 orr.
- SEDZE (H.) "Les vieux remèdes béarnais", *Pyrénées* 99, 1974, pp 171-177.
- SEGALAS (Dr.) ta HENRY (O.) "Analyse des eaux d'Ahusquy" in *Memorial des Pyrénées* 12-13, 10., Pau, 1857.
- SMEDT de (M.) "Le guide de la France des guérisseurs, leur histoire de vie, leurs spécialités, leurs adresses", *Ret z*, 1978, 210 orr.

- SOUBERVIELLE (Dr.) "Analyse des eaux d'Ahusquy", *Gure Herria*, Baiona.
- SULMAN (F.G.) *Health, weather and climate*, Basel, 1976.

T

- TARTAS (Y.) *Arima penitentaren okupazione debotak*, Orthezen, 1672 (osasuna ta barura).
- TALDEAK "Antropologiaren ikastaroa", *U.E.U.* Leioa-Bilbao, 1978, 172. orr.
- "Biologia orokorra", *U.E.U.* Ed. Bilbao, 552 orr.
- "Nortasunaren psikologia", *U.E.U.*, Bilbao, 1978.
- Osasuna ta janariak*, Bilbao, 1986, 72 orr.
- "Medicina de Montaña", *Eusko Jaurlaritz*, Gasteiz, 1984, 414 orr.
- Gizona ta medikuntza*, Txertoa arg., Donostia, 1984.
- Comment la sagesse vient aux femmes*, Actes de la journée d'Ethnologie Comparée sur le thème de la sage-femme dans les sociétés traditionnelles, Bruxelles, Juin 1986. Ed. Civilisations, 1986, 36.zbk. (emagintsak ohitura-gizarteetan)
- Comprendre le recours aux médecines parallèles* spécial Germ (Groupement pour une Réforme de la Médecine) n° 202, automne 1987, 62 orr.
- THALAMAS LABANDIBAR (J.) "Contribución al estudio etnográfico del País Vasco continental", *Anuario Eusko Ikaskuntza*, Gasteiz, 1931.
- THILLAUD (J.P. Dr.) *La maladie et la médecine au Pays Basque*, Tesia

U

- URKIZU (P.) *Astolaster ta tobera mustrak*, Ed. Euskaltzaindia, Bilbao, 1992.
- UETENEA (taldea) "Bermeoko arrantzaleen ohiturak" sineskerak eta sineskeriak" Ed. *Bermeoko Udala*, Bermeo, 1, 1981.
- URRUTIBEHETY (Dr. CL.) "Les eaux minérales: Kanbo-ura, Kanbo ithurria", *Gure Herria*, 1968, 130-192 orr.
- URRUTIBEHETY (Dr. Cl.) "Cheminement de quelques croyances populaires en Basse-Navarre", *BSLA*, Baiona, 1958.
- UZEI (taldea) *Biologia I. Landare eta animalien izenak*, Ed. Elkar, Donostia, 1984, 533 orr.
- Biologia II. Botanika hiztegia, Onddo ta landare*. Ed. Elkar, Donostia, 1986, 502 orr.
- Medikuaren hiztegia*, Donostia, 1986
- Medikuntza, liseri aparatua*, Ed. Elkar, Donostia, 1986.

V

- VAZQUEZ DE PARGA ta beste "Peregrinaciones a Santiago", *C.S.I.C.*, Madrid, 1984, II.
- VINCK de (P.) "La guérison magique entre médecine et sorcellerie", *Civilisations*, Bruxelles, 1986, vol. 36
- VINSON (J) *Le Folklore du Pays Basque*, Paris, 1883.

X

- XARRITON (P.) *Mediku solas* (Jean Etxepare medikuaren idazlanak) Eskualduna aldizkarian egin zituen hedakuntzazko artikuluak. Ed. Elkar, Donostia, 1986.
- Médecines et médecins dans la littérature basque*, G.A.S. Pau, 1988.

Z

- Civilisations*, Germ Bruxelles, 1986, 36 zbk ZEEBROEK (R.) "Histoire savante et "pensée sauvage" dans les nomenclatures botaniques en Europe" in.

X

- (Izengabeak) *La médecine et la chirurgie des pauvres, qui contiennent des remèdes faciles à préparer et sans dépenses etc...*, Paris imp. Lecomte, 1758.
- Abereen liburua* (XVIII. mendean norbaitek zubereraz jarria, Dassanceren, 1697.ko liburutik).